


20 ipui eta ...



Antzerkitxo bat Ikastolarako.

Madira Alaya

20 IPUI

ETA

ANTZERKITXO BAT

IKASTOLATARAKO



ALBISU TA AYERDI'TAR
ANASTASIO

Autor: Anastasio Albisu Ayerdi
Edita: Juan José Garmendia - Librería Técnica de Difusión - Tolosa
Imprime: Gráficas ESET - Seminario Vitoria
Depósito Legal VI 730 - 1975
 I. S. B. N. 84-400-9081-1

1.974-garren urteko Ilbeltza'ren 8'an Ataun'en gihan Arrinda'tar Anastasio, Garmendia'tar Juan Jose ta irurok.

Arrerarik onena egin zigun Barandiaran'go Joxemiel'ek, "Sara" izeneko bere etxetxoan. Eta eskertze-koa zan benetan egin zigun arrera au, makalik arkitzen bait-zan On Joxe Migel.

Eraman genduan arazoaz mintzatuaz gero, eskabide au egin genion On Joxe Migel'i: ematen al'digu-zu, zuk EUSKO FOLKLOREAN argitaratutako ipui oiek, guk gure-erara idatzi ta argitaratzeko eskubiderik..?

Eta On Joxe Migel'ek, nola ez, baiezkoa eman zigun poz-pozik.

Nik, nere aldetik, kontu-kontari ederra izan nuan nere aita Albisu'tar Joxe Mari aundia. Ta oso-ondo zertorkion "aundi" izen au, bai gorputzez aundia zalako, ta baita buruz ere. Errementari bat besterik izan ez-arren, bere kasaka ikasi bait-zituan prantzesa ta inglesa.

Ala ere, euskeraz idatzi zituan bere idazkirik geienak, eta arrigarria ba'da ere, ba'ditu bere idazki oien artean "sermoi" batzuek ere.

1.940-garren urtea izango zan..

Oitura bat genduan orduan Lazkau'n: azken apaiztu zan erriko-semeak egin bear izaten zuan San Prudentzio-eguneko sermoia.

Nere lengusu baten txanda zan. Nere lengusu orrek ordea, Barakaldo'n jaioa zalako-edo, etzuan euskera, nai bezela, menderatzen. Eta nere aitak orduan, berak idatzi zion sermoi osoa.

Nere lengusu ori, ala ere, etzan ausartu. Ta orduan nik, itzez-itzez ikasi ta egin nuan sermoi ori erriko pestanagusi egunean. Eta etzan ain-gaizki egiña egongo, askok esan bait-zioten nere aitari:

—Sermolari ona dezu zure seme ori, Joxe Mari..!

Eta baita nere aitak, azkar-asko, erantzun ere:

—Ez naiz batere arritzen, ama bait-du orrek sermolaririk onena..!

Nik ez datik zergatik, baiñan egun artan etzan nere aita Meza-Nagusian izan. Eta onela esan zidan bazkaltzekoan:

—Ez uan, nik idatzitako sermoia egingo..?

—Bai, aita, bai..! Ta itzik-erratu-gabe gaiñera..!

Eta esaten niona, egia zala, sinistu zezan, antxen-bertan berritu bear izan nion sermoi osoa-ia.

Orregatik ipui auetako iru, nere aitaren idazkietatik artuak ditut, naiz-eta EUSKO FLOKLOREAN ipui auen antzekoak agertu.

Ondo merezi du nere aitak aipamen au..!

ABERE-IPUIAK

1914

berriko 78
2. a 77-78
10

I

AXARIA'REN ZORIGAITZA..!

Ba'ote leike, elurrik ezagutzen ez duan, axaririk.

Gure ipuiko onek etzuan, beintzat, ezagutzen. Eta elurterik-aundienean zerura-begira zegoan zoraturik, elur-maluta aiek, zer ote ziran, bere buruari galdezka..!

An-inguruan egaka ari zan, arrano batek ikusi zuan, eta, bi egoak zabal-zabalik, axariarengana etorri zan.

—Zer ari zera begira..?

—Zer ariko naiz, ba..! Zerutik erortzen ari diran gauza aueri begira. Ez bait-det, nik, orrelako-gauzarik orain-artean ikusi..!

—Ez dezu ortaz, oiek zer diran, jakingo..?

—Eta zuk..?

—Ez det, ba, jakingo..? Oillo-lumak dituzu oiek..!

—Oillo-lumak..?

—Oillo-lumak, bai..!

—Ara, jarraitu zuan arranoak. Jai dute biar zeruan, eta oilloak lumatzen ari dira orain.

—Oilloak lumatzen..? Nor legoken biar, an..!

—Izan ere, oillo-zalea zera zu..!
—Iñor baldin ba'da, ni naiz bat..!
—Antxe aseko ziñake, ba, bein-betirako..!

dehats
ari dira-ta lumatzen..! Zuk bezelako ego ederrak ba-
nitu..!
newcey

—Etzaite orregatik estutu..! Nik-neronek eramango zaitut zeruraño, zuk nai baldin ba'dezu beintzat..
—Naiko ez det, bada..!

Eta arranoak orduan...

—Gogorrek al'dira zure ortzak..?
—Arria baiño gogorrak..!
—Eldu zaidazu, bada, nere buztanetik gogor, eta laister eramango zaitut zeruraño..!

Eta odeietan-gora igaro ziranean, izketan asi zitzaion arrano maltzurra, buztanetik zintzilik zeraman, axari gijajoari:

—Ondo al'zatoz, axari..?

Axariak, ordea, etzeukan aoa-irikitzerik, eta etzion erantzuten.

—Ondo al'zatozen, galdetzen dizut, axari..?

—Oraingo-ontan erantzuten ez ba'didazu, emen-txen bertan utziko zaitut, eta zuk jakingo dezu lurreraño nola joan..! Ondo al'zatoz, axari..?

Eta axariak, goi-aietan askatuko ote zuan bildurrez...

—Bai, erantzun zion.

Eta "bai" esateko, iriki egin-bear izan zuan aoa, ta goitik-beera erortzen asi zan.

Gero ta gertuago ikusten zituan mendi-gaiñeko aitzak, eta zekarren abiadurakin auts-biurtuko ote zituan bildurrez-edo...

—Kendu zaitezte nere bidetik, deadar egiten zien aitzeri. Kendu nere bidetik, auts-biurtu nai ez ba'dezute..!

Eta axaria izan zan arrautz-opil biurtu zana..!

Eta arranoak izan zuan, egun artan, jai, ta ez zeruko aingeruak..!

Lagun gaiztoekin etzaitz beñere fio..!

2-7-8 DER. 6
10

II

ASTOA TXAKURRA KATUA OILARRA ta AARIA..!

Errotako morroiak etzuten asto ura nai.

—Leen, bai..! Asto ona zan au, leen. Errez ibiltzen zuan errota-arria. Amaika gari-anega eiotu ditu bere bizian..!

Zaartu egin da orain, ordea. Joan egin zaizkio indarrak. Ez da, ba, lanerako gauza, ta, jan besterik, ez du egi-ten..!

Obe zenduke, bada, biar-beratan il. eta beste barri bat ekarriko ba'zenduke..!

Eta errotako nagusiari ere, etzitzaion, ain-intxuragabea iruditu, bere morroien eskabide au. Zertarako bear zuan ark, asto zaar bat, bere errotan..?

Luzeak dira, ordea, astoaren belarriak, eta urrutira entzuten dutenak.

—Au dek au, zion berekiko astoak, ainbeste-urteerako lanen ordaiña..! Biotz ohea zutela gizonak, uste

nian nik, baiñan ez.! Ez die biotzik..! Eskergabeak dituk dan-danak, baiñan nik jakingo diat, zer egin.

Eta ainbeste-urteetan bere bizi-tokia izan zan ikullu ura, maiteki agurtu, ta iges egin zuan, errotatik, asto zaarrak.

Egun bateko bidea-edo egin zuan, bide-ertze batean eiz-txakur bat, marruka, arkitu zuanean.

—Zer dituk marru oiek..?

—Zer izango dira, bada..! Emen-inguruetakoa eiz-txakurrik onena izan nauzu ni. Ala zioten, beintzat, danak. Eta putza baiño arroago bizi zan, nerekin, nere nagusia. Baiñan urteak ez dute, noski, barkatzen. Eta leengo senik ez dedalako-edo, onera ekarri naute, gaur, etxeko morroiak. eta emen utzi naute, arkakasoak ilko nautela-ta..!

—Nerekin etzien ainbeste-erruki izan. Eta iges egin ez ba'nian, illa nengoan gaur, eta nagusiaren bai-menarekin illa gaiñera. Laga itzak, ba, marru oiek, eta ator nerekin..!

Eta beste egun bateko bidea egin ondoren-edo, katu bat arkitu zuten, miauka, lur-jotako borda bateko leio-ertzean.

—Eta ik zer den..?, galdetu zioten astoak eta txakurrak.

—Zer dedan, galdetzen didazute..? Xagu ta arratoiekin ezin burutu zutela-ta, etxe batera eramán nin-

duten, oso-gaztea nintzalarik..! Jai-aundiak egiten zizkidaten xagu edo arratoiren-bat arrapatzen nuan bakoitzean. Eta nik, tontona onek, ez nuan ezertarako astirik artzen, eta laister il nituan ango xagu ta arratoi guztiak. Eta nere nagusiek, eskertu-bearrean, etxetik bota ninduten, etzutela, ordutik, nere bearririk-eta. Eta emen-txen nago, geroztik, eriotza noiz etorriko zaidan, zai..!

—Ator gurekin, eta etzan eriotzarik *aipatu*, zori gaizto berdiña izan diñagu guk ere-ta..!

Eta beste egun bateko bidea egin ondoren, bere burua, sasi-artean, izkutatu nai zuan oillar bat, arkitu zuten astoak, txakurak eta katuak.

—Ez al'dek kukurrukurik jo bear..?

—Nik baiño barru-lasaiagoa dezute, ikusten dedanez.

—Eta zer dek ba ik, ain-estu bizi izateko..?

—Zer dedan..? Erri ontako festak ditugu biar, eta etxeoandreak, gaur, arrapatzen baldin ba'nau, kazuela batean ondo-errea egongo naiz, biar, ordu ontarako. Kukurrukuka asiko ote naiz ba, etxeoandreak billatu nadin..?

—Arrazoi det..! Eta guk baiño zori ohea ez daukakelako, ator, i ere, gurekin..!

Eta ibilli ta ibilli egin ondoren, aari batekin egin zuten-topo astoak, txakurrak, katuak eta oillarrak.

—Ori, bai, ondo bizi dala..!

—Ni..?

—Zu, bai, zu..! Jatekorik etzazu falta, ta egun guztian etzanda zaude. Zer geiago nai dezu, bada..?

—Zaudete, arren, ixillik. Zuek ez bait-dakizute nere zorigaitza..! Zortzi egun-barru ezkontzen da nere nagusiaren alaba, ta egun ortarako gizendu nai naute, eztaitarak naiko-jana izan dezaten..!

—Eta zergatik ez dezu, ori jakin-eta, iges egiten..?

—Eta irabaziko al'nuke orrekin ezer..! Beste gizon gaizto baten eskuetan eroriko nintzake, bear bada, ta beste aariren batekin egin bearکو nuke takatekoka nere buru-ezurra austerano..!

—Ez gukin etortzen ba'zera..!

Eta gau batean, kandela-argi bat ikusi zuten urruti batean, eta arutz joan ziran astoa, txakurra, katua, oillarra ta aaria.

Lapur-etxe bat zan. Jokuan ari ziran lapurrak. Arnas luze bat egin, eta itzali zuan astoak kandela aren argia, ta illunpe osoan gelditu ziran lapurrak.

—Bota zak, ik, atea, esan zion, orduan astoak aariari.

Eta aariaren takatekoen-indarrez erori zan atea.

Bein-barruan, astoaren gainean jarri zan aaria, aariaren gainean txakurra, txakurraren gainean katua eta katuaren gainean oillarra. Ta danak batera ekin zioten...

arrantzaka astoak,
beeka aariak,
zaunka txakurrak,
miauka katuak
eta kukurruka oillarrak..!

Iskanbilla onek, eta leengo ateko danbatekoak,
izuturik utzi zituan lapur guztiak: beren eserlekuetatik
jeikitzeke gauza etzirala, alegia..!

Eta sutondoan ipiñi zuan, orduan, astoak katua,
tximiniko apalean oillarra, sukaldeko ate-atzean txaku-
rra, eskillara-barrenean aaria, ta ikulluan izkutatu zan
bera.

2^o —Orrela ez diagu ezer egiten emen. Etxeko atea
bota zigutek, eta danok etzun dezute, etxe-barruan sor-
tu diguten, iskanbillea..- Bi auetako bat esan nai dik
onek: edo-ta adarra jo nai digutela, ta gure laguneta-
ko batzuek izango ituzkek orduan, edo-ta gu baiño la-
pur aundiagoak dirala, ta ez dutela gure bildurrik...

—Eta nola jakin zeikiagu ori..?

—Zotz egiñaz..! Eta zotza jasotzen duanak, eman
dezaiola, etxe osoari, ikustaldi bat..!

Etzan erreza illumpe artan.

Eta zotza jaso zuana, sukaldera sartu, ta sutondora
urbildu zanean, aurpegi osoa atzamarkatu zion katuak,
orkatza sartu zion oillarrak begi batean, kosk-egin zion
txakurrak zanko bietan, takatekoka josi zuan orma-kon-

tra aariak, eta zerraldo bota zuan, ikulluan, astoak ostikoka..!

Luze zijoakien beste lapurreri. Ta ordu-bete osoa igaro, ta agiri etzanean..

—Or ez dek gauza onik, esan, eta iges egin zuten danak.

Lapur-etxe artan etzan ezeren-faltarik. Danetik zegoan ugari, ta antxe bizi izan ziran, geroztik, astoa, txakurra, katua, oillarra ta aaria..!

Eta au ala ba'zan
sartu dedilla kalabazan
eta atera dedilla
Bitori'ko plazan..!

Gurasoak ez dira abereak..! Eta beren etxeetatik botatzen dituzte, ala ere, askotan, zaartu egin diralata, besterik gabe..!

Ez al'dezu, zuk beintzat, orrelakorik egingo..!

2-78
III

AXARIA TA OTSOA.

—Ez al'dek goserik, Otsoko..?

—Gosea bai, baiñan zer-janik ez..!

—Garia jotzen ari dituk sakristauarenean. Zergatik ez gaituk, arutz joaten..?

—Lanera..?

—Bai, Otsoko, bai..! Emen egon-da, ez diagu ezer irabazten, eta sakristauenean etzaiguk jatekorik faltuko..!

Potzu aundi baten ondotik igaro bear zuten. Eta eguzkiak diz-diz egiten zuan potzuan.

—Axari, zer dek, or uretan, ikusten dan ori..?

—Zer izango dek, ba..! Gaztai aundi bat. Baiñan...

—Zer..?

—Gaztai orren jabe izateko, orko urak edan bear dituk aurrena. Ta ni ez nauk, ortarako gauza. Ik-proba nai baldin ba'dek..

Eta potzuan sartu zan Otsoko..!

—Alper-alperrik ari aiz, Otsoko..!

—Zer, ba..?

—Edaten ari aizen ur guztia, atzetik irtetzen zaik, eta orrela etzegok potzua ustutzerik..!

—Zergatik ez diak, arto-koskal bat sartzen..!

—Bai, Otsoko, bai. Egingo diat ori ere..!

Eta urez bete-bete egin zanean Otsoko, Axariak berriro:

—Gaztai orrek ez dik orrenbeste merezi, Otsoko. Urasko zegok oraindik or, eta obe diagu, sakristauarengana joan.

Eta uretatik irten zanean, edan zuan uraren-urez, lurra jotzen zuan Otsokoren sabelak.

Eta sakristauarengana iritxi ziranean, bazkaltzera zijoazen, garia jotzen ari ziranak.

—Ekin lanean, esan zien sakristauak. Eta guk bazkaltzen degunean, izango da zuentzako ere, zer-edo-zer.

Erantzun onek etzion poz-aundirik eman Axariari. Ta maltzurra zanez, arto-koskola atera zion Otsokori, ta...

—Urak daramazki sakristauaren gariak..! Urak daramazki sakristauaren gariak..!, ekin zion deadarka.

Laisterka batean jetxi ziran sakristaua-ta. Ta Otsoren ur-botatze ura ikusi zutenean, makilka ekin zioten Otsoarekin, eta etzioten pakerik eman, erritik-kanpora bota etzuten arteraño.

Axaria, bitartean, sakristauaren etxera igo zan. Eta jatekoz ondo ase zanean, esnezko-arrozetan murgildu zuan bere burua.

Ba'zan ura, Axariaren itxura..! Garunak kanpoan zituala, esan zezakean.

Aieneka-batean arkitu zuan Otsoa bide-ertze batean.

—Axari, esan zion Otsoak. Ni ez nauk ibiltzeko gauza, ta ire bizkar-gaiñean eramán bearako nauk. Bizkar-ezurra ausi bait-zidatek makilka..!

—Nerekin ez die ba, erruki aundiagorik izan. Garunak atera zizkidatek neri. Ez al'dek nere buru au ikusten..?

Eta biak, ontan ari zirala , txakur bat ikusi zuten an-gertuan, eta arengana joan, eta...

—I, Txakur, esan zion Axariak. Emen ari gaituk gu-biok eztabaidan, nork, nor eramán bear duan bizkarrean. Nere lagun oni, bizkar-ezurra ausi ziotek, neri, berriz, garunak atera..! Nor dek iretzat, biotan errukarriena..?

—Bizkar-ezurra ausita eukitzea, ez dek ederra, baiñan garunak kanpoan eukitzea, ez dek ederragoa. Nere iritzian, i aiz ba, errukarriena..!

Eta au entzun zuan bezein laister, Otsoaren bizkar-gaiñean jarri zan Axaria, eta kanta-kantari ekin zion bidean.

Bizkar-ezurra ausi dioten
Otso, ontan, kaballero,
errez dijoa Axari jauna
ondo bazkalduta gero..!

—Maltzurra intzana ba'nekian, baiñan ainbeste-
raño intzanik, ez..! Orain ikusiko dek, zer dan ona..!

Eta ipur-saltoka asi zan Otsoko, bere bizkar-gaiñetik
Axaria bota naiean.

—Zertara zetozek ipur-salto auek, Otsoko..?

—Eta neri galdetzen al'didak..? Zer esan dek,
oraintxe kantatu dekan bertso ortan..?

—Ni zer zekiat ba..! Ik ez al'dakik, garunak kan-
poan dituan bat, zoratu egiten dala..?

—Zoraturik ago, beraz..?

—Bai, Otsoko, bai..! Ta etzekiat, zer esaten dedan
ere..!

Eta Axariaren zulora iritxi ziranean, Otsoaren biz-
karretik salto egin, eta bere zuloan sartzen asi zan
Axaria.

Eta baita isatsetik gogor eldu Otsoak ere. Ta Axa-
riak orduan :

—Ez nian uste, ain-zorua intzanik, Otsoko. Nere
isatsari eldu bearrean, pago-sustrai bati eltzen ari aiz,
ero ori..!

Eta Otsokok orduan, Axariaren isatsari utzi, ta pagsustrajari eldu zion amorru bizian.

Algaraz sartu zan Axaria bere zuloan. Eta bein zulo-barreanean, onela agurtu zuan Otsoko :

Zulo onetan, ik ezin sartu..!

Ez adi ba, or zai egon..!

Agur Otsoko. Beste bat arte..!

Milla esker, eta gabon..!

Ona izatea gauza bat da, ta tontoa izatea beste bat..! Etzaita ba, ipui ontako Otsoken antzekoa izan.

2-18
IV

JOANES ARTZAIA TA EREN-SUGEA..!

Ba'zan, Joanes izeneko, artzai on bat. Aitzgorri'n zeukan bere txabolea, ta Urbi'ko zelaian larratzen zuan bere artaldea.

Suge-kume, jaiο-berri bat billatu zuan bein-batez. Eta ain-polita zalako-edo, gazurez azi zuan bere txabolan.

Indartu zanean, ordea, askatasuna eman zion, eta gure sugea, beste sugeak bezelaxe, bizi-izaten asi zan.

Ala ere, eguardiero-eguardiero jotzen zion txistua Joanes'ek, eta, zegoan tokian zegoala, arrastaka etortzen zan Joanes'en txabolara. Ta antxe euki oi zuan beti, ontzi batean gerturik, gazurerik ederrena.

Negua etorri, ta Aitzgorri elurrez zuritzen asten zanean, onela esan oi zion Joanes'ek bere suge maiteari:

—Aitzgorri'k estali dik bere burua txapel zuriz, eta ondo dakik ik, orrek zer esan nai duan. Bee-aldera jo bearko diagu guk, eta bakar-bakarrik gelditu bearko

dek ik, emen. Izan zak, bada, ire buruaren kontu, ta ea, zenbaterañoکو اوندیا ٻڌڻن ٻڌڻن، نه ٻڌڻن ٻڌڻن...

—Eta zergatik ez nauzu, ni ere, zurekin eramaten..?

—Ik ez dituk bee-alde oiek ezagutzen. Mutil-koxkor gaiztoz beterik zeudek, eta suge bat ikusi orduko, arrika ekiten ziotek danak-batean.

—Itzultzen zeranean, ordea...

—Ez adi estutu..! Joko diat txistua, ta gazure-ederez bete-beterik eukiko diat, iretzat, nere txabolako kaurik aundiena.

Eta onelaxe urte batean, eta bestean, eta bestean..., gure suge-kumea, eren-suge biurtu zan arteraño.

Eta eren-suge aundia izan arren. Joanes'ek txistua jotzen zionean, an agertzen zan, egunero, bera, Joanes'ek gertatutako gazurearen billa.

—Eskarrikasko, Joanes..!

—Ez orregatik, beintzat..!

—Biar arte..!

—Bai, Jaungoikoa'k nai baldin ba'dik..!

Baiñan zaartzen asia zegoan Joanes ere, ta gero-ta gogorragoa egiten zitzaion artzai-bizitza, ta artzai-bizitzak berea duan bakardadea.

Eta artaldea saltzea, erabaki zuan bein. Artaldea ta txabolea, biak batera alegia.

Eta alaxe egin zuan, egin ere, ta kalean jarri zan bizi izaten..!

Urteak aurrera zijoazkion, eta leengo baztar aiek ikusteko gogoia etorri zitzaion bein.

—Laister ez naiz gauza izango, ta ez nuke, baztar aiek berriro ikusi-gabe, il nai. Antxe eman bait-ditut nere bizitzako urterik ederrenak. Eta bizi ote da oraindik, ain-maiteki azi nuan, eren-suge ura..? Pozik ikusiko nuke berriro, ta pozik agurtuko ere, betirako..!

Eta makilla bat lagun artu, ta mendi-gora ekin zion, berriro, Joanes artzaiak. Leen baiño neke aundiago-arekin noski, baiñan ez, leen baiño, lillura gutxiagoa-rekin. Leen ez-bezelako ederrak iruditzen bait-zitzaizkion, orain, paraje guzti aiek..!

Etzuan negarra urruti, bere burua txabola aurrean ikusi zuanean.

—Kaixo, Joanes..!, esan zion nagusi berriak. Leengo egunak oroitu naiean..?

—Bai, Exteben, bai..!

Eta txabola-aurreko arri batean eseri zan oldozkor..!

Bakarrik utzi zuan Exteben'ek.

Eta amets-gozo aietan ari zala, berak azitako eren
—sugea etorri zitzaion burua.

—Bizi ote zan oraindik..? Ez ote zuan norbaitek il..? Ezagutuko ote zuan, oraindik, aren txistua..?

Eta bat-batean jeiki, ta gogor jo zuan txistua. Ta orra,
nun ikusten duan urrutira bere-berea zuan eren-sugea.

—Bizi dek..! Bizi dek oraindik..!

Eta lagun bat besarkatzera bezelaxe, joan zan Joanes,
eren-sugearen bidera..!

Eren-sugeak ordea, gazurerik ez zekarkiola oartu
zanean, bere ao aundia iriki, ta oso-osorik irentsi zuan
Joanes gizarajoa..!

Eren-suge, eren-suge,
izakirik gaiztoena..!
Nola irintsi dezakek
ire lagunik onena..?

V 281

SAMIEL'GO ERENSUGEA..!

Mikel, Mikel, Mikel gurea
zaizu, zaizu Euskal-erria..!

Izan al'zera inoiz, Aralar'ko Mikel goi-aigeruaren
saindutegian..?

Izan baldin ba'zera, ikusiko zenduan noski, eliz-
barruko elizatzxoan, zulo bat. Aldarearen albo-batean
dago. Ta arutz joaten diran danak, "kredoa" erreztatzen
dute, burua zuloan sarturik..! Zuk ere egingo zenduan
noski..! Ta bertakoak diotenez, leize baten sarrera de-
zu zulo ori.

Ba'da oraindik, beste zerbait ere.

Elizatxo orren orma batean, kate batzuek daude
zintzilik. Kanpo-aldetik noski. Ta buruko miña sarri
izaten dutenak-eta, kate oien azpitik igaro oi dira iru
biderrez. Ez al'zenduan zuk, orrelakorik egin..?

Dana dala, zer-ikusi aundia dute leize orrek eta
kate oiek, orain esango degun ipui onekin..!

* * *

Aspaldi batean, erensuge bat bizi omen zan leize ortan. eta gose-zanean, inguruetakoko errietara jetxi, ta bildurgarrizko ilketak egiten omen zituan.

Eta aundia zanez gero, egunero izaten zan gose..!

—Zenbat izan dira gaur..?

—Jainkoa'k daki..! Bat edo bi irentsi dituanak, eta bidean zenbait il dituan, geroago jakin bear ori. Gu-reak beintzat, ez bait-dira oraindik etxera etorri..!

Illuntze oro il-kanpai otsa
negarra ta aieneka..!
Erensugea ilko zuanik
ez bait-zegon iñor-eta..!

Eta erabaki mingarri bat artu bear izan zuten azkenean, erri aietako bizi-lagunak.

—Ori ez..!, esaten zuten emakumeak.

—Zer besterik egin dezakegu..?, galdetzen zuten gizonezkoak.

Eta gizonezkoen galdera onek, etzuan erantzunik izaten

—Zuentzat bezein mingarria da guretzat, erabaki au. Iñork ez bait-degu erensugearen ortzetan il nai..! Baiñan ura mendian eukiko ba'degu, ase egin bear degu aren gosea, nola edo ala...!

Errira etorriko zaigu egunero, bestela. Ta errira etor-
tzen dan bakoitzean, asko izaten dira arek irentsi ta il-
dakoak. Onela ordea, ez da bat-besterik izango..!

Eta artutako erabakiak agintzen zuan bezela, zoz-
keta egiten zan illunabar oro erriko enparantzan.

Erri batean gaur, bestean biar eta txandaka onela,
inguru aietako erri guztietan.

Eta zotzik-motzena jasotzen zuanak, aretxek joan be-
ar izaten zuan erensugearen leize-ondora, erensugearen
egun-artekeo janari izan zedin..!

Beingo batean, neskatxa batek
jaso zuan zotz-motzena,
ta etxekoeri agur egin-da
leizera joan zan, dardarka..!

Erensugea noiz agertuko,
ba'zuan ark naiko kezka..!
Gazte batentzat ba'zan uraxe
negargarrizko eriotza..!

* * *

Aralar-median bizi zan egun aietan, Teodosio, Go-
ñi'ko zaldun gaztea, ezarri zioten penitentzi bat bete-
tzen.

Ezkondu zan egun-berean, eremutar-gaizto bat ir-
ten zitzaion bidera, ta onela esan zion:

—Nora zoaz, Teodosio..?

—Iruña'ra..! An bear nautela-ta..!

—Aitzaki bat besterik ez da ori, Teodosio. Iruña'n ez dira zure bear..! Zure uste ez arren, ba'du zure emazte Amaia'k beste maitale bat. Eta maitale orrek asma-tutako gezur bat besterik ez da, Iruña'ko ori..!

Eta sinistu egin zion Teodosio'k.

Eta etxeratu zanean, bi arkitu zituan, berea ta bere emaztearena bear zuan oe artan.

Illuna zan gela artan nagusi. Ta nortzuk ziran jakiteko astirik artu-gabe, ezpataz il zituan biak..!

Sukaldean arkitu zuan bere emazte Amaia.

—Eta gure gelan oeratutako bi oiek, nortzuk ziran ba, Amaia..?

—Nortzuk izango ziran bada: zure aita ta ama..!

Eta Erroma'raño jo zuan Teodosio'k, nai-ezta egin zuan pekatuaren barkamen-eske..!

Gogorra izan zan Aita Santua'k ezarri zion penitentzia.

—Burnizko oiñetakoak jantziko dituzu, ta kate luze bat lotuko dezu zure gerrian. Eta batetik-bestera ibiliko zera, zure etxera joan gabe, oiñetako oiek eta kate ori urratuko etzaizkizun artean..!

Eta Aralar-mendira etorri zan Teodosio, penitentzi ori betetzera.

* * *

Zaldun-antzeko bat agertu zitzaion bein-batean.

—Nik esana egiten baldin ba'dezu, laister urratuko zaizkizu oiñetako oiek eta kate ori..

—Eta zer da bada, ortarako egin bear dedan ori..?

—Zaldi-zimaurrez igurtzi..! Oiñetakoak lenengo ta katea gero..!

Eta zaldun-antzekoak esanda bezela egin zuan Teodosio'k, eta bereala urratu zitzaizkion oiñetakoak, baiñan ez katea. Ta negargarriagoa egin zitzaion orduan Teodosio'ri, bere egoera ura. Ez bait-zeukan leen-bezela ibiltzerik. Ta leen-bezela ibiltzen etzala, ezin ba urratu katerik..!

Teodosio, Teodosio
zori gaiztoko gizona..!
Zaldun-antzean, etsaia zendun
emen ikusi dezuna..!

Etzaite, orde, estutu arren..!
Izan, betire, kemena..!
Kate-zar oiek urratutzeko
ba'du Zeruak kemena..!

* * *

Eta leize-aurrean belaunikaturik, arkitu zuan Teodosio'k neskaxa gaztea.

—Zertan zaude or..?

—Ai, Teodosio, Teodosio..! Aundia da zure zorigaitza baiñan nere au, ez da txikiagoa..! Zotzik-motzena atera nuan atzo, ta emen nago, erensugeak noiz irentisiko..!

—Zoatz etxera, ta ni-neroni geldituko naiz zure orde, emen. Kate auek ez dauzkat urratzerik bein-ere. Ta Jainkoaren barkamena iritxiko det orrela, bearbada..!

Eta erensugearen leizarafño luzatu zuan Teodosio'k, gerritik zintzilik zeraman kate luze ura.

* * *

Eguardia-edo izango zan, erensugea leizetik atera zanean. Eta Teodosio'k iges egingo ote zion bildurrez-edo, Teodosio'k luzatu zion katea irentsitzen asi zan erensugea, kate ura belarra ba'litz bezelaxe.

Bildurgarria zan erensugearen aoa: zorrotzak aren ortzak: aundiak eta biribillak aren begiak: luzea ta lodia aren gorputza: dizdiratsuak aren ezkatatak: motzak eta gogorak aren ego-antzekoak eta sua-bezelakoa aren sudurreko arnasa..!

Gero ta gertuago ikusten zuan Teodosio'k erensugea, ta gero ta aundiagoa zan erensugeak ematen zion bildurra.

Pozik egingo zuan iges, baiñan ezin..! Katea urratu bearko zuan ortarako, eta, etzan munduan, kate ura urratuko zuan gizonik..!

Eta estuasun artan oiu au irten zitzaion Teodosio 'ri:

—Lagun zaidazu, Mikel goi-aingerua..!

Eta Teodosio'ren oiu au zerura iritxi zanean, onela esan zion Jauna'k Mikel goi-aingeruari:

—Mikel..! Ire laguntzaren bear dek norbait Euskal-errian..

—Euskal-errian'n..?

—Bai, Mikel, bai..! Ta ez daukak galtzeko denborarik.

—Ba'noa, baiñan zatoz zu ere arren, nerekin. Gure laguntza bear duan euskaldun ori, nik uste dedan bat baldin ba'da, ondo irabazia du-ta gure laguntza ori.

* * *

Eta Teodosio'k bere burua, erensugearen ao-barruan ikusi zuan une-une artan, agertu ziran an, Jauna ta Mikel goi-aingerua. Ta ezpataz moztu zion Mikel goi-aingeruak erensugeari bere burua. Ta ez ori bakarrik..!

Ori egiteko egin bear izan zuan indarraren-indarrez, erensugearen buruarekin batera, moztu zizkion Teodosio'ri ere, bere kateak..!

* * *

Teodosio'k jaso dala, diote orregatik, Aralar-mendiko saindutegia. Ta orra, zergatik gordetzen diran an bertan, ain-maiteki, leizearen aoa, ta Teodosio'k eraman zituan kateak.


Eta danok dakizuten bezela, Aralar'ko Mikel goi-aiingeruak gurutzea dauka bere buru gainean. Eta onek ez du, au besterik esan nai: Jaunak-berak lagundu zio-la Mikel goi-aiingeruari, au Aralar-mendira lenengoz etorri zanean.

Euskal-erri'ko zaindari degu geroztik Mikel goiaingerua. Ta orregatik abesten diogu ere:

Mikel, Mikel, Mikel gurea
zaizu, zaizu Euskal-erria..!

II

JENTIL-IPUIAK



VI

JENTIL ARROA...!

Jentillak, Barandiaran'dar On Joxemiel'ek dionez, sinisgabeak eta basatiarrak ziran, ta oso indartsuak. Mendi-gaiñetan eta oso-urrutietan bizi oi ziran. Etzuten, errietan bizi ziran kristauekin artu-emanik, eta ez burrukarik ere.

Ba'zan ordea, Jentil-baratza'n besteak baiño indartsuagoa zalako, Arroa esaten zioten bat.

Onela esan zien, bein, bere laguneri:

—Zuen-artean indartsuena, ni nauk noski. Baiñan ba'dituk or, bee-oietan, kristau-izeneko beste gizon batzuek. Etzituagu ezagutzen ere. Ta oietako batekin neurtu nai nituzkek, nik, nere indarrak.

Eta Jentil-baratza utzi, ta kristau-erri batera jo zuan.

Eta mutil-koxkor bat arkitu zuan lenengo.

—Kristaua al'zera..?

—Alexe naiz, bai..!

—Eta ez al'zenduke nerekin, burrukan egin nai..?

—Zurekin..?

—Zergatik ez..?

—Ez al'dezu, mutil-koxkor bat besterik ez naizela ni, ikusten..? Zurekin burrukan egingo duanak, gizona bear du izan, eta ni ez naiz, oraindik, gizon. Zoatz ba aurrera, ta laister arkituko dezu, bear-bada, zurekin burrukan egin-naiko duan gizonen bat..!

Eta agure zaar bat arkitu zuan bide-ertze batean, eguzki epela artzen.

—Kristau-erri auetako gizon batekin neurtu nai nituzke nere indarrak..!

—Besten-bat billatu bearko dezu ortarako..!

—Besten-bat..?

—Bai, gizona, bai..! Ume batek menderatuko luke-ta, ni bezelako agure zaar bat..!

—Kristau-erri auetan ez dago, ortaz, gizonik..?

—Zoatz, or-aurreko, sutegi ortara, ta ortxe arkituko dituzu bi edo iru gizon..!

Jentil-arroa'k etzekian, sutegi bat zer zan, ez-eta ango gizonak nolakoak ziran ere.

—Eup..!, deadar egin zuan sutegi-atean.

—Zer nai zenduke..?

—Jentilla naiz ni, ta gure artean ez dago, ni ba-ño, indartsuagorik. Kristau batekin neurtu nai nituzke, orregatik, nere indarrak..!

—Ez al'zera, bein-ere, bee-auetan izan..?

—Gaur-arteraño, ez..!

—Ez gaituzu, ortaz, ezertarako ezagutzen..?

—Ez..!

—Eta ba al'dakizu, sutegi bat zer dan..?

—Ez..! Ez dakit, sutegi bat zer dan..! Jentil-baratza'n ez bait-degu orrelako gauzarik..!

—Nik-neronek neurtuko ditut, ortaz, zurekin nere indarrak. Baiñan ni baiño ere askoz-aundiagoa zeralako, nere bi atzaparrak zure aurpegian ezartzen, utzi bear didazu burruka-astean..

—Ori besterik ez ba'da..!

Eta sutegian sartu, ta su bizi-bizian ipiñi zituan, gure sutegiko gizonak, lanerako ibilli oi zituan tenazarik aundienak.

Laister agertu zan, berriro atarian. Izkutuan zekartzten, sutan guri-guri egindako, tenazak. Eta Jentil-arroarengana urbildu ta...

—Ba'dakizu, zertan gelditu geran, esan zion. Ni baiño askoz-aundiagoa zeralako, nik eldu bear dizut lenengo.

—Ez nau orrek kezkatzen..!

—Zaude, ortaz, geldi-geldi une batean.

Eta sudurretik eldu zion gogor, sutan guriturako tenaza aiekin..!

Entzutekoak izan ziran Jentil-arroaren marruak..!

Etzuan, nai bezein azkar, iges egin..! Piper-errea ematen zuan aren sudurrak..!

—Ta..?, galdetu zioten bere lagunak, Jentil-bartzara eldu zanean.

—Arte-txarrak zeuzkate kristau oiek. Gu baiño geiago dituk. Atzapar bikin menderatu nautek. Gureak egin dik..!

Eta Jentil-arroa etzan, geroztik, kristau-erri batera jetxi..!

*Indartsua izateak baiño geiago balio du,
buru-argiko izateak..!*

VII

TARTALO..!

Ba'zan ura gizona, gizon-izenik merezi ba'zuan..!
Luzea ta andia zan. Beste edozein gizon baiño, bi-aldiz
luzeagoa ta aundiagoa. Ta etzuan begi bat besterik. Eta
bekoki-erdian zuan bere begi-bakar au..!

TARTALO-ETXE izeneko leize-zulo batean bizi zan,
eta bere eskuetan erortzen zan guztia jaten zuan, naiz
aberea izan, naiz giza-semea izan..!

Ardi-narruz beterik zeukan-ia bere leize-zuloa, ta
ardi-narruz jazten zan bera ere..!

* * *

Egun batez, mendira irten ziran anai bi, TARTALO-
ETXE'ra urbildu ziran. Eta barruan iñor etzegoala-ta,
tentaldian erori, ta barrura sartu ziran, ikus-miñez...

Urruti batetik, ikusi zituan Tartalo'k. Eta aiek
oartu ziranerako, leize-zuloan zan.

Arri aundi batekin itxi zuan leizeko sarrera. Ta
bein barruan, onela esan zien anai bieri:

—Eskerrak etorri zeratelako..! Or ibilli naiz egun guztian, zer arrapatuko, ta ez det, ardi bat ere, atzitu. Barau-egin bear ote nuan, bildur nintzan. Eta orra-nun arkitzen dedan, nere etxe-barru bertan, jatekorik goxoena afaltzeko..!

Eta bi mutillak ondo azterkatu ondoren, onela esan zion bietan-zarrenari :

—I izango aiz nere gaurko afaria, ta ire beste anai au, nere biarko bazkaria..!

Eta besterik-gabe sartu zion burrunzia batetik-bes-tera ta su-gaiñean ipiñi zuan erretzen.

Aren jan eta edan-bearrak etzuan neurririk..!

Zaragi bat ardo, edan zuan oso-osorik afaltzekoan, eta logaleak artu zuan gero.

Ala ere, ta ardi-narruetan etzan aurretik, eraztun bat sartu zion anai-gaztenari, bere eskui-eskuko beatz batean.

Ba'zuan eraztun onek bere adurra, gero ikusiko degun bezela..!

* * *

Laister zan zurrunka Tartalo.

Burutapen bat etorri zitzaion orduan, anai-gaztea-

ri. Ta ixil-ixillik su-ondora urbildu, ta sutan ipiñi zuan, bere anaia erretzeko, Tartalo'k ibilli zuan burruntzi ura bera. Ta guritu zanean, bi eskuekin artu, ta bere begi-bakarrean sartu zion burruntzia Tartalo'ri.

Ura etzan ordea, Tartalo-bezelako gizon bat iltze-ko naikoa. Ta itxutu ba'zuan ere, etzion orregatik, bere beste almenik galdu-erazi..!

Su-ta-gar jeiki zan Tartalo. Ta anai-gaztearen bila ekin zion amorru-biziz..!

Ordurako ordea, ardi-narru artean izkutatu zuan bere burua anai-gazteak..!

—Alperrik abil..! Ez aiz emendik, bizirik irten-go..!

Eta ardi-narru artean izkutatuko zala-ta, ateko arri aundia kendu, ta kanpora botatzen asi zan ardi-narru guzti aiek..! Ez bana-banaka ordea, eskubeteka baizik. Eta eunka bear ziran, aren besoak betetzeko..!

Eta orra-nun botatzen duan kanpora, ardi-narru artean, anai-gaztea ere..!

Bere burua kanpoan ikusi zuanean, laisterkari eman zion anai-gazteak..! Baiñan eraztun ura etzan ixiltzen.

—Emen nago..! Emen nago..!, zion beti ere

Eta eraztunaren otsera, zuzen zijoan Tartalo anai-gaztearen bidean.

Egin zituan onek, eraztuna beatzetik ateratzeko, alegin guztiak. Baiñan alperrikoak izan ziran danak..!

Gero ta gertuago ikusten zuan Tartalo, ta etsi ere, egin zuan gizajoak..!

Bat-batean ordea, osin aundi baten-aurean ikusi zuan ani-gazteak bere burua, ta...

—Au dek nere..!, esan, eta arri-zorrotz batekin moztu zuan, eraztunak lotzen zion beatz ura. Ta baita, azkar-asko, osin-erdiraño bota ere..!

Etzan, ala ere, eraztuna ixildu..!

—Emen nago..! Emen nago..j, zion beti ere.

Ber-bertan entzuten zuan Tartalo'k eraztunaren deadarra.


—Aundia dek,egin didaken okerra. Baiñan arrapatu aut-ia, eta errukarria i..! Ez dek gaurtik, egun on bat izango, ire bizi osoan..!

Eta eraztunaren deadar aiek, osiñean murgildu-erazi zuten Tartalo, ta antxen ito zan betirako. Ez baitzekian igari..!

*Tartalo, Tartalo
begi-bakar gaizto..!
Ire indar aundi oiek
zertarako, zertarako..!*

III

SORGIN-IPUIAK



VIII ¹²

MURUMENDI'KO MARI...!

Etixeratu zanean, onela esan zion amak bere alaba Mari'ri:

—Bei-gorria ez da oraindik etxeratu. Zoaz, bada, ta ekarri ezazu etxera.

—Gaua gaiñean degu, erantzun zion alabak, ta Jainkoa'k bakarrik daki, nun ote dan orain. Biar-goi-zean joango naiz, ama.

Eta ama gaizto arrek biraorik aundiena bota zion bere alabari:

—Deabruak eramango al'zaitu, gaur-bertan ekar-tzen ez ba'dezu..!

Eta gaua gaiñean izan arren, mendira irten bear izan zuan Mari gajoak. Bildurtu egin bait-zuan amaren birao arrek..!

Illuna zegoan mendia. Eta illumpe artan bei-gorri bat ikusi zuan, bere ustez...

—Auxe da gure bei-gorria, esan, eta isatsetik eldu zion gogor.

Eta bei-antzeko arrek, arkaitz-zulo batera eraman zuan itxumustuan, arrastaka. Ta deabrua zanez gero, sorgin biurtu zuan Mari.

Etzuan iñork geroztik, Mari'ren berririk luzaroan izan.

Egun batez ordea, an-inguruan zebillen batek, neskatxa eder bat ikusi zuan arkaitz-zulo barnean, eta Mari ote zezakean, jarri zitzaion buruan. Eta errira jexi, ta Mari'ren amari azaldu zion bere kezkea.

Ondo damutua zegoan orduan Mari'ren ama, eta erriko apaizarengana jo zuan laisterka.

An zegoan, bai, Mari, ta txakur aundi bat zeukan bere oiñetan, lo..!

Meza emateko gertatzen asi zanean apaiza, deadar au egin zion Mari'k arkaitz-zulo barrutik:

—Ez emen mezarik eman. Zuen otoitz oiek esnatu egingo luteke txakur au, ta ni sorgindu naun bezelaxe, sorginduko zaituzte zuek ere. Zoazte bada emendik, eta etzaitzete nerekin geiago oroitu..!

* * *

Egunero-egunero irtetzen zan gero Mari, arkaitz-zulo atarira, ta an egoten zan, arri aundi batean eserita, bere buruko illeak orrazten.

Murumendi'ko artzai bat gertatu zan bein an, eta aren edertasunez lilluraturik, emaztetzat artu zuan, eta Murumendi'ra eraman..!

Zazpi seme-alaba izan zituzten. Mari'k ordea, etzuan bere seme-alabarik bataiatzerik nai, ta naigabaturik bizi zan orrekin artzaia.

Bein ordea, ura etzala Jainkoa'ren legea-ta, gurdian artu zituan bere zazpi seme-alabak eta Mari. Lotu egin bear izan zuan au, ez bait-zuan elizara joan nai..!

Eta elizara urbildu ziranean, su-bezelako bat irten zan Mari'ren gorputzetik, eta loturik zeuzkan lokarri guztiak kiskali zituan. Eta...

—Nere umeak zerurako, ta ni Mururako, esanez, egaka bezela biurtu zan Murumendira.

Eta antxe bizi da geroztik, Murumendi'ko Mari sorgiña...!

Eta au ala ba'zan
sartu dedilla kalabazan
eta atera dedilla
Bitori'ko plazan..!

Bere amaren birao batek
egin zuan Mari sorgin..!
Itz zatar batek kalterik asko
egin bait-dezake berdin..!
Oitura txarrik etzazu artu..!
Gorde garbi zure ao..!
Ao zatarra duten oietan
gizontasunik ez dago..!

IX

LAZKAU'KO DUKEAREN ALABA...!

"Euskal-erri'ko erri geientsuetan bezelaxe, ba'zan Lazkau'ko errian ere, oitura bat: bedeinkatutako ogi-zatitxo batzuek banatzen zituan akolito batek, Meza-nagusiko eskeintza-garaian. Ogi-zatitxoarekin AITAREN egin, eta antxe-bertan jaten zan ogi-zati ori.

Lazkau'ko Dukearen alabak ere, artu zuan bedeinkatutako ogi-zatitxo ori. AITAREN ere egin zuan, baiñan etzuan ogirik jan. Eta baztar batera bota zuan, elizatik irten zan bezein laister.

Astelena zan urrungo eguna, ta etzan gure neska ori, oetik jeikitzeke gauza. Ta gaxoago arkitzen zan ordutik-ordura."

Estutu zan Dukea, ta sendagillerik onenak ekarri-erazi zituan. Sendagille auek ordea, etzioten gaitzik billatzen, eta, ala ere, gero ta illunago agertzen zan neskea.

Eskale bat agertu zan Lazkau'n, ostiralean, etxe-

rik-etxe eskean. Eta illunabarrean, Errotaaundi'ra joan zan, an bait-zeukan, laberako egur-artean gaua igarotzeko txoko bat.

Gau-erdia-edo izango zan, txistu-antzeko ots bateg esnatu zuanean. Eta dardarka ekin zion ikaraz. Ez baitzekian ark, inguruetako sorgin guztiak, antxen bil-tzen zirala ostiralero..!

—I-ji-ji..! A-ja-ja..!, ekin zion Murumendi'ko Mari'k Ba al'dakizute, zer gertatzen dan emen, Laz-kau'n..?

Eta onela erantzun zioten beste guztiak batera :

—Gertatzen dana, gerta bedi,
ajola gutxi orrek guri...!

Eta Mari'k :

—Gaxo dagoala Dukearen alaba..!

A-ja-ja..! I-ji-ji..! Ta ba al'dakizute, zergatik da-goan gaxo..?

Eta besteak batera :

—Gaxo ba'dago, gaxo bedi,
ajola gutxi orrek guri..!

Eta Mari'k :

—Elizan eman zioten bedeinkatutako ogi-zatitxoa,
baztar batera bota zualako..!

I-ji-ji..! A-ja-ja..! Ta ba al'dakizute, nun dagoan
gaur, ogi-zati ori..?

Eta besteak batera :

—Dagon tokian, egon bedi,
ajola gutxi orrek guri..!

Eta Mari'k :

—Zapo baten aoan..!

A-ja-ja..! I-ji-ji..! Ta ba al'dakizute zapo ori, nun da-
goan..?

Eta besteak batera :

—Eliz-ondoko arri batean
izkutaturik betiko..!
Iñork billatu ez dezan eta
neskatxa sendatu gero..!

Eta Mari'k :

—I-ji-ji..! A-ja-ja..! Egia diozute aizpatxoak. Eta
ogitxo orrek sendatu dezake, bakar-bakarrik, Lazkau'ko
Dukearen alaba..!

Eta ori esan zuan bezein laister, jo zuan bere kukurrukoa Errota-aundi'ko oillararak. Eta bat-batean izkutatu ziran sorgin guztiak.

* * *

Gure eskalearentzat etzan, zapo ura billatzea, lan erreza izan. Billatu zuan ordea. Ta ogi-zatitxoa ondo gorderik agertu zan Dukearen jauregian.

Etzioten sartzen utzi nai. Ta an sortu zan ixkanbillea zala bide, atean agertu zan Dukea bera.

—Zure alabaren gelara joan nai luke eskale onek..!

—Zertara, ordea..?

—Berak dionez, zure alaba ori sendatzera..!

—Etzaiozute ba galerazi..! Sendagillerik onenak ezin sendatu izan dute. Onek ere, ez du sendatuko noski. Baiñan ikusteak ez du kalterik..!

Eta Dukeak-berak lagundu zion neskatzaren gelaraño.

* * *

Aoan sartu zion, korderik-gabe zegoan neskatzari, ogi bedeinkatua, ta irentsi zuan bezein laister, irri-par goxo bat loretu zan neskatzaren ezpañetan.

* * *

Andik egun batzuetara, beste eskale bat agertu zan Lazkau'n, etxerik-etxe eskean. Eta etxe aietako batean, atea jo zuanean, leengo bere eskale-laguna agertu zitzaion atean. Arriturik gelditu zan eskalea..!

—Ez adi arritu, mutil..! Aberats bizi nauk orain, eta nerea diat etxe au..!

—Nolatan. ordea..?

—Errezago ezin..! Ik dakikan bezela, Errota-aundi'ko labe-egur artera joan nituan leengo-ostiralean, gaua igarotzera. Nik ez nekian, sorgiñak ostiralero an biltzen ziranik. Eta aieri entzundako gauza batek aberastu nauk..!

—Ez dek, egia izango..?

—Egia dek, bai..!

—Eta ez al'dek gaur ostirala..?

—Alaxe dek, bai..!

Eta Erota-aundi'ra joan zan gure eskalea, ta labe-egur artean izkutatu zuan bere burua.

* * *

Eta orra, gau-erdi inguruan, nun asten diran sorgiñak etortzen. Gure eskalearen pozak etzuan neurri-rik. Begi ta belarri zan dana. Ta Murumendi'ko Mari agertu zanean, asi zuten sorgiñak beren batzarra.

—I-ji-ji..! A-ja-ja..; Ba al'dakizute, zer gertatzen dan..?

Eta besteak batera :

—Gertatzen dana, gerta bedi
ajola gutxi orrek guri..!

Eta Mari'k :

—Laskau'ko Dukearen alaba sendatu egin dala..!

A-ja-ja..! I-ji-ji..! Ta ba'dakizute, zergatik sendatu
dan..?

Eta besteak batera :

—Sendatu ba'da, sendatu da,
gurea ez da pekatua..!

Eta Mari'k :

—Zuena ez, enetxoak..! Baiñan bai, emen, labe-
egur auen artean izkutatzen dan bateren-batena..!

Eta erratzak artu, ta bazter guztiak miatzen asi
ziran sorgiñak.

—Ona-emen, nun dagoan zelataria..!, deadar egin
zuan batek.

Eta errukirik-gabe makildu zuten, danen artean,
eskale gizañoa..!

* * *

Etzuan gizon-itxurarik ere, bere lagunarengana etorri zanean.

—Zer gertatu zaik, mutil..?

—Ezer ez..! Nik ordaindu bear izan diatela, ire zoriona..!

—Ez adi orregatik estutu. Ba'diat nik, biontzat aiña diru, ta alkarrekin biziko gaituk gaurtik-aurrera.

Onela izaten dituk mundu ontako gauzak. Amaika aldiz ordaindu bear izaten zituk batek, beste baten erruak..!

X

SORGIN GAIZTOAREN IPUIA...

PATXI zan aitaren izena, MIREN amarena ta EDURTXO bien alaba bakarrarena.

Elurra bezein zuria zan Edurtxo, eguzkia bezein argia, ta illabete batzuek besterik etzituan artean, eta Edurtxo zan inguru-aietako umerik zoragarriena.

Patxi mendira joaten zanean, etxe-ondoko lizaritzalpe batean lotaerazten zuan Miren'ek Edurtxo. Kanta-kantari lotaerazi ere...

Edur, Edurtxo, nere maitea
aitatxo mendian dago,
krabelintxo bat, krabelintxo bi
bildu nai ditu zutzako..!

Zu bezelako neskatxarikan
ez bait-da beste bat jaio,
krabelintxo bat, krabelintxo bi
egin dezazun lo ta lo..!

* * *

Eta sorgin-itxura guztiak berekin zituan atso-zaar bat agertu zitzaion bein, bat-batean..!

Kakotua zuan bere sudur aundia. Etzituan betortzak beste ortzik. Orein iguingarri bat zeukan sudurzulo baten ondoan, eta zapi-beltz batekin estaltzen zituan bere buruko txima naasiak.

—Orraztu egin nai zinduzket, Miren...

—Ni..?

—Bai, Miren, bai, zu...

—Ain-narrasa ikusten al'nauzu..?

—Ez, Miren, ez..! Gutxi dira zu bezein txukunak emen, baiñan nere urrezko orrazi au zukin asi nai nuke. Orixe besterik ez da, Miren...

* * *

Eta orraztekoan, buru-beltzeko orratz bat sartu zion Miren'i buru erdi-erdian, eta USO bihurturik geldituzan Miren.

Atso-zaarrak orduan...

Sorgiñak gera mundu ontako
emakume azkarrenak
erratz-makilla naikoa degu
egan egiteko danak..!

Buru beltzeko orratz batekin
egiten ditugu lanak.

USO biurtu dedan Miren'ek
aitor bitza gure almenak..!

Eta Edurtxo altzoan artu, ta antxen gelditu zan
sorgin-zaarra, Miren bera ba'litz bezelaxe.

* * *

- Ori ez da Miren..!
- Nor ote degu atso zaar ori..?
- Ume-zaia izango dute..!
- Ume-zaia..? Ez al'zegoan ederragorik..?
- Beste zerbait merezi zuan Edurtxo'k..!

Eta sorgin gezurtiak intzirika...

—Miren nauzute, bai..! Sorgin gaizto baten bi-
raoak ekarri nau itxura ontara..! Zori gaiztoa nerea..!
Edurtxo'k, esnatzean, ez nau ezagutuko, ta etxetik kan-
pora botako nau, Patxi, nere senarrak..!

* * *

Etzuan etxetik-kanpora bota, ez..!
Miren zalakoan artu zuan etxean, eta bai maiteki
artu ere, aren zori gaiztoa ikusi ondoren.

* * *

Eta aberats bizi zan sorgin gaiztoa.

* * *

Egun batean, ordea, ta bazkaltzen ari zirala ain zuzen, uso txuri-eder bat agertu zan baratzako madariondo batean...

—Arritzekoa da, zion Patxi'k. Nere ondoren dabilela uso txuri-eder ori, esango nuke nik.

—Bai zera..! Zure irudipenak besterik ez dira oiek, Patxi..!

—Ez, Miren..! Ez dira nere irudipenak. Mendan nagonean, ni nora, ara joaten da bera ere. Uso bat besterik ez dan bezela, emakume bat ba'litz, nerekin txoraturik dagoala, esango nuke ezpairik-gabe.

—Zergatik ez dezu bein, eskopeta artu, ta iltzen..?

—Miren..!

—Zer..!

—Orrenbesteraño gogortu al'dizu biotza, ere, sorgin gaizto orrek..?

* * *

Eta mendian zan batean, eskua luzatu zion Patxi'k, eta eskura etorri zitzaion usoa. Ta usoa laztantzen ari zala, gogortasun bat nabaitu zuan Patxi'k usoaren buru erdi-erdian.

Buruko lumatxoak jaso, ta buru-beltzeko orratz bat arki-zion buru-erdian josirik.

Poliki-poliki atera zion miñik artu ez zezan. Eta Miren biurtu zan usoa..!

* * *

Bein-etxean, Edurtxo laztantzera joan zan Miren, eta erriko enparantzara eraman zuan Patxi'k sorgin-gaiztoa. Ta antxen erre zuan erriko guztien aurrean.

Eta au egia baldin ba'da
sartu dedilla kalabazan
eta atera dedilla
Bitori'ko plazan..!

XI

SORGIN-LAPURRAREN IPUIA..!

Bere iru semeekin bizi zan aita batek, sagasti eder bat zeukan etxetik urruti-xamar. Eta naiz-eta orma ederez inguraturik egon sagastia, gauero-gauero izaten zuan norbait, sagar-lapurretan...

—Erabakiren-bat artu-bearrean gaituk, esan zien bein aitak. Ez diagu bestela negurako, sagarrik izango..!

—Erremedio erreza du orrek, aita, erantzun zioten semeak. Gutako-bakoitzak igaro dezala sagastian, gau bat. Txandaka egin dezakegu ori, ta ez da guretzako ere, ain lan-zailla izango..!

Eta anaietan zaarrenak igaro zuan sagastian, lenego gaua. Goizaldean ordea, logaleak artu zuan, eta, esnatu zanerako, sagar-ondo bateko sagar guztiak falta ziran.

Beste-ainbeste gertatu zitzaion bigarren gauean, erdiko anaiari ere.

Anai-gaztearen txanda etorri zanean, etzioten, sagastira joaten, utzi nai.

—Gaztetxoa aiz i oraindik, ortarako. Lapurra nor dan, etzekiagu, ta, bada-ezbada ere, obe dek ik, etxean gelditu.

—Ni ez nauk, zuek baiño bildurriago. Ta zuek baiño zori obeagoa izango diat, bear-bada..!

Eta igitai batekin joan zan anai-gaztea sagastira.

Illun-illuna zan gaua, soin-beltz bat orma-gaiñera igo-naiean, ikusi zuanean. Etzan orregatik bildurtu. Ta igitia artu, ta zirt-eta-zart asi zan anai-gaztea.

Laister-asko egin zuan iges lapurrak..!

Urrungo-goizean, sagastira joan ziran iru anaiak, eta txunditurik gelditu ziran, orma-azpian arkitu zuten esku-beltz aundi arrekin.

—Errez billatuko diagu orain lapurra. Odol-tanta aueri jarraitzea, naikoa diagu ortarako..!

Odol-tanta aiek ordea, arri aundi baten ondoan galtzen ziran.

—Emen bear dik lapurrak. Kendu dezagun bada, arri aundi au emendik.

Eta leize-zulo bat arkitu zuten arri aundiaren azpian.

—Ni jetxiko nauk, esan zien anai-gazteak. Ni bait-nauk, irurotan ariñena..!

Eta lokarri batekin jetxi zuten leizean-beera. Eskuan zeraman igitai zorrotza..!

Neskatxa eder bat arkitu zuan leize-ondoan.

—Zu etzera ba izango, gure sagastira, sagar-lapurre-tara, joaten dana..?

—Ez naiz ni, ez..! Osoak dauzkat nik, ikusten de-zunez nere bi eskuak.

—Nor zera ba, ta zer egiten dezu emen..?

—Errege aundi baten alaba naiz ni. Emen bizi dan sorgiñak atzitu ninduan bein, eta emen bizi naiz geroztik, illunpe ontan.

Lokarrian lotu zuan orduan neskatxa, ta goruntz zijoala, Ama Birgiñaren kutun batzuek bota zizkion neskatxak.

—Gorde itzatzu ondo. Oien bear izango zera, bear-bada-ta..!

Zoko batean arkitu zuan gero, sorgiña. Uraxe zan, bai, lapurra. Esku bat falta bait-zitzaion..! Ta katu-beltz aundi bat zeukan bere magalean.

Atzamarka ekin zion mutillari, katuak aurpegian.

Mutillak ordea, igitai astindu, ta erdi-bi egin zuan katua.

Etzan sorgiña bildurtu, ala ere.

—Ez dek nerekin, katuarekin egin dekena, egingo..!

—Bai, emendik ateratzen ez ba'nauzu..!

—Ez aut aterako..! Egon adi ziur orrekin..!

Eta mingaiña ateratzen zion gaiñera, ala-burlaz.

Burruka gogorrean lotu ziran azkenean, biak. Baiñan mutillak uste ez-bezelako indarrak zeuzkan sorgin arrek, eta ezin menderatu zuan..!

Alako batean ordea, mingaiña moztu zion, eta bere patrikan gorde zuan mutillak sorgiñaren mingaiña.

Etzuan orregatik sorgiñak, itza galdu.

—Alperrik abil..! Ire igitai orrek etzidak bildurrik ematen. Eta emen bearko det nerekin, ire bizi osoan.

Eta bildutzen azi zan mutilla..!

Eta neskatxak bota zizkion Ama Birgiñaren kutu-
nekin oroitu zan bat-batean. Eta baita orduan neskatxak
esan zizkion itz aiekin ere: "gorde itzatzu ondo. Oien
bear izango zera, bear-bada-ta". Eta kutun aiek artu,
ta burutik-beera sartu zizkion sorgiñari.

Entzutekoak ziran, sorgiñaren orduko deadarrak..!

—Kendu izkiak kutun auk lepotik..!
—Ez, emendik ateratzen ez ba'nauzu..!
—Kendu izkiak, arren..!
—Ez..! Ez dizkizut kenduko..!
—Kendu izkiak arren, eta nik-neronek aterako aut, nere bizkar-gaiñean, leize-zulo ontatik..!

Eta bere burua kanpoan ikusi zuanean, etzuan anaigazteak bere etxerako bidea artu, neskatxak esan zion lurralde-artarako bidea baizik.

Etzuan an, soiñua ta dantza besterik arkitu. Ta ostatuan eman zioten, gertatzen zanaren, berri.

—Biar ezkontzen bait-zaigu, gure Erregearen alaba bakarra..!

Berri onek, etzion gure gazteari, poz-aundirik eman. Eta bere leioko leiarra kax-kax-kax jotzen, igaro zuan gau osoa..!

Urrungo-goizeko eguardi-aldean, nor ikusiko, eta bere anai-zaarrena ikusi zuan, Erregearen alabarekin, elizarako bidean.

Etzuan orrelakorik uste..!

Iriki zuan bere gelako leioa. Artu zuan eskuan, sorgiñaren mingaiña, ta onela esan zion:

—Mingain, mingain, emen orduko, izan adi aien-gain..!

Eta mingaiñaren joan-etorri laister aiek, izugarrizko aizea sortu zuten. Etzegoan zutik egoterik ere ta Erregea'k urrungo-egunerako atzeratu bear izan zuan bere alabaren ezkontza..!

Kax-kax-kax igaro zuan anai-gazteak bigarren gaua ere. Ta ezkongaiak elizarako bidean agertu ziranen, agindu berdiña eman zion sorgiñaren mingaiñari :

—Mingain, mingain, emen orduko, izan adi aien-gain..!

Eta aurreko-egunekoa baiño bildurgarriagoa izan zan oraindik, bigarren egun ontan sorgiñaren mingaiñak sortu zuan aizea..!

Bildurtu zan Erregea...! Ez ote zan gero, ura dana, bere alaba atxituta euki zuan, sorgiñaren joku bat..?

Eta erri osoan zabaldu zituan bere morroiak, sorgiñaren billa..!

—Jauna..!, esan zion, jauregira laisterka itzuli zan morroietako batek. Ostalariak dionez, ba'du bere ostatuan, kax-kax-kax joaz, bi gau aiek igaro dituan gazte bat..! Ez ote degu bera, zuk diozun sorgin ori..?

—Ekarri zaidazute, leenbaitleen, onera..!

Baiñan gure gazteak, etzion Erregea'ri, au-besterik esaten :

—Nik itz-egingo ba'det, zure alabak egon bear du emen. Ez det bestela itzik-esango..!

Eta alaba etorri zanean, Ama Birgiñaren kutunak erakutsi zizkion anai-gazteak.

—Ezaguntzen al'dituzu kutun auek..?


—Ezagutuko ez ditut ba..?

Eta Erregea'rengana joan, eta onela esan zion neskatxak.

—Aita..! Auxe da, ta ez bere beste anaia, ni sorgiñaren eskuetatik atera ninduan mutilla..! Onek izan bear du, bada, nere senarra..!

Eta antxen-bertan ezkondu ziran biak. Eta zoriontsuak izan ziran beti..!

Eta au ala izan ba'zan
sartu dedilla kalabazan
eta atera dedilla
Bitori'ko plazan..!



IV

BESTE IPUI BATZUK



XII

ZAPATARI-TXIKIA..!

Izan zan, leen ere, zapatari parregarri bat Errezil'en. Zapatak-egiten igaro zuan bere bizitza osoa-ia, ta aaztu egin zitzaion, azkenean, zapata oiek nola egiten ziran..!

Gure ipuiko zapatari-txikiak, etzuan, zapata oiek, nola egiten ziran, aaztu-bearrik izan. Ez bait-zuan, zapataria izan arren, zapatak nola egiten ziran, sekulan ikasi. Ta pobre bizi zan noski, oso pobre..!

Ba'zuan, ala ere, bere alderdi ona: erruki aundi-koa zan, oso errukitsua. Ta bere aotik etzan itz-zatar au besterik ateratzen: kaka zaarra..! Ta noizean-bein au ere gauzaren-bat gaizki irtetzen zitzaionean alegia.

Eskale bat etorri zitzaion, bein batean, limosnaeske, ta gure zapatari-txikiak beretzat zeukan ogi-zatia eman zion oso-osorik.

Eskaleak, orduan, sioñean zeraman txapel zaar-zikiña eman zion.

—Txapelak, ikusten dezunez, ez du asko balio. Zaarra ta zikiña dago, ta sitsak ia-jana... Baiñan ba'du adur eder bat: edozer asmatzen du, txapel au buruan daramanak..!

Eta alde guztietara zabaldu zan, geroztik, gure zapatari-txikiaren izen aundia..!

Bere jauregira ots-egin zion, bein, Erregea'k.

Gure zapatari-txikiak etzuan orrelakorik pentsatu, ta etxean utzi zuan txapel zaarra. Ura ez bait-zan, Errege baten aurrean agertzeko, txapela..!

Eta Erregea'ren jauregian, urre-gorritzko kutxa eder-eder bat ekarri zioten aurrera, ta onela esan zion Erregea'k:

—Asmatzaille ona zerala, esan didate. Zuretzat ez dagoala izkaturik. Eta ori egia ote dan, ots-egin dizuk onera... Ea bada..! Ikusten al'dezu, nere morroi oiek eskuetan daukaten, urre-gorritzko kutxa eder ori..?

—Ikusiko ez det, bada, jauna..!

—Ederki..! Baiñan beste au da, nik jakin nai nukeana: esango al-zidazuke, kutxa orren barrenean, zer gordetzen dedan..?

Orduan oartu zan gure zapatari-txikia, etxean utzi zuala txapel zaarra, ta, bere asarrean, etzitzaion au besterik atera:

—Kaka zaarra..!

Eta alaxe zan, izan ere. Zaldi-zimaurrez bete-erazi bait-zuan Erregea'k urre-gorritzko kutxa eder ura..!

Zapatari-txikia etzegoan trankil, ordea. Ta iges egin zuan, jauregitik, illuntze berean, eta bere txapela-rekin agertu zan urrungo goizean.

Aurdun zegoan Erregiña. Ta jakin nai izan zuan Erregea'k, Erregiña'k emango zion aur ura, mutilla ala neskea izango zan.

—Ara bada, Jauna, erantzun zion zapatari-txikiak. Alde ontatik begiratzen diodanean, mutilla ikusten diot, eta beste alde ontatik begiratzen diodanean, neskea ikusten diot..!

Eta Erregea'ri etzitzaion erantzun au gustatu, ta giltzapean satu-erazi zuan, gezurtti bat ba'litz bezela.

—Ortarako ez dago asmatzaillea izan bearrik..! Nik-neronek, ere, ba'daki orrenbeste. Mutilla ez baldin ba'da neskea izango da; ta neskea ez baldin ba'da, mutilla..!

Baiñan Erregiña erdi zanean, neska-mutillak izan zituan, ta zerurafio jaso zuten, orduan, gure zapatari-txikia..!

Baiñan ez omen da arantzarik-gabeko larrosarik,

eta ezta naigaberik-gabeko etxerik ere. Ta gure Erregea'k, ere, ba'zuan bere naigabea: jakin nai, eta ezin jakin zuan gauza bat..!

—Ba'det nik, olako tokian bizi dan, nere beste alaba bat. Gaztea ta ederra da, ta ez ditu emezortzi urte besterik. Baiñan, gauero-gauero, zapata-pare bat urratzen du, eta nik ezin asmatu dezaket, nola... Jakingo ote zenduke, zuk..?

—Jakingo ez det, bada..!

Eta susmo-txar bat etorri zitzaion zapatari-txikiari burura: Erregea'ren alaba ori, ez ote zan gero..? Baiñan etzuan, ondo jakin arte, ezer esan nai izan.

Gau-erdia-edo izango zan, neskatxa ori, "odei guztien azpitik eta sasi guztien gaiñetik" esan, eta, erratz baten gaiñean, etxeko tximinitik irtetzen ikusi zua-nean...

Beste ainbeste esan eta egin zuan zapatari-txikiak ere, ta laister zan, sorgiñak, gauero-gauero, egiten zuten, billera aietako batean...

Etzegoan, bada, ezpairik..! Sorgin-dantza aietan urratzen zituan Erregea'ren alabak bere oiñetakoak...

Eta etxeratzerakoan, "sasi guztien gaiñetik" esan bearrean, "sasi guztien azpitik" esan zuan gure zapatari-txikiak, eta, katu batek, erabat atzamarkatu ba'lu bezelaxe, agertu zan Erregea'ren aurrean.

Min izan zuan Erregea'k, baiñan, sorgiña zanez
gero, erriko enparatzen erre-erazi zuan bere alaba. Ta
urrez-beterik bialdu zuan, bere etxera, zapatari-txikia.

Eta au, ala gertatu ba'zan, sartu dedilla kalabazan.

*Sorgiñak gora, sorgiñak bera
sorgin-ípui asko dago..!
Sorgiñik, orde, ez da izandu
sorgin-ípuietik kampo..!*

XIII

BEÑARDO 2010

—Ikusten al'dezute opil au..? Ikastolatik biotan-lenengo etorriko danarentzat, izango da opilla..! Ea nor etortzen zeraten, ba, lenengo..!

Karmele izeneko arreba bat zuan Beñardo'k eta onela esan zion ikastolarako bidean:

—Zu etzaite estutu, Karmele. Mutilla naiz ni, ta zu baiño leenago etorriko naiz etxera, baiñan zutzako gordeko det opillaren erdia.

Eta ikastolatik etxera biutru zanean, onela esan zion Beñardo'k bere amari:

—Ona ni emen, ama..! Nun gorde dezu opilla..?

—Ortxe, sukaldeko armario ortantxe..! Artu dezakezu, bada, Beñardo.

Eta opillaren billa, burua armarioan sartu zuanean, armarioko atea indarrez itxi, ta burua moztu zion amak.

Aizkorea artu zuan gero, ta Beñardo'ren gorputza zatitu ondoren, eltze aundi batean ipiñi zituan zati guztiak egosten.

Gerotxoago etorri zan Karmele, ta...

—Ez al'da Beñardo etorri..?, galdetu zion amari.

—Etorri da, bai..! Baiñan enkargu bat nuan, eta errira bialdu det berriro. Zuk joan bear ko dezun orregatik gaur, aitari bazkaria eramatera..!

Begi-argia zuan Karmele'k, eta laister ikusi zituan, su-gaiñean "gal-gal" ari zan eltze aundian, Beñardo'ren beatzak eta gorputzeko beste zatiak.

Ikazkiña zan Karmele'n aita.

Negar batean zijoan Karmele mendira bidean, eta Maitagarri bat agertu zitzaion bat-batean.

—Zer dala-ta negar oiek, Karmele..?

—Ai, Maitagarri..! Nere amak il-egin du Beñardo, nere anaia, ta otarra ontan ipiñi dizkit bere gorputz-zatiak, aitak jan ditzan..!

—Etzaite estutu, Karmele, nik esango dizut-eta zer egin bear dezun.

—Eta zer egin dezaket, bada..?

—Aitak botatzen dituan ezur guztiak bildu itzatzu, zuk arduraz. Eta aitak, zertarako dituzun ezur oiek, galdetzen ba'dizu, oso politak dirala ta jolasteko nai dituzula, erantzungo diozu.

Eta etxeratzekoan, zai zeukan Maitagarri leengo toki berdin-berdiñean.

—Eta bildu al'dituzu Beñardo'ren ezur guztiak..?

—Bai, Maitagarri, bai..! Ementxen daramazkit otarrean.

—Ederki, Karmele..! Zoatz orain etxera. Egizu baratzean zulo bat, eta sartu itzatzu zulo ortan ezur guztiak.

—Eta amak, zertan ari naizen, galdetzen baldin ba'dit..?

—Baratzuriak aldatzen ari zerala, erantzungo diozu..!

Eta Maitagarria'k esan bezela egin zuan Karmele'k.

Eta andik egun batzuetara, zugaitz eder bat agertu zan baratzean, eta Beñardo zugaitz orren gaiñean.

Ezpata bat zuan Beñardo'k eskuiko eskuan, eta sagar eder bat ezkerreko eskuan. Ura zan sagarra, ura..!

—Emango al'didazu neri sagar ori, Beñardo, galdetu zion amak.

—Nere ezpata onen gaiñetik bi salto egiten ba'dituzu, bai..!, erantzun zion Beñardo'k.

Eta bigarren saltoa egitekoan, lepoa moztu zion Beñardo'k.

—Eta emango al'didazu neri..?, esan zion orduan aitak.

—Bai..! Emango dizut..! Baiñan bi salto egin bearko dituzu, zuk ere, nere ezpata onen gaiñetik.

Eta egin zuan aitak lenengo saltoa, baiñan leporik gabe gelditu zan au ere, bigarrenkoa egitekoan.

Ixillik zegoan Karmele, ta Beñardo'k orduan :

—Eta zuri ez al'zaizu atsegin sagar au, Karmele..?

—Atsegin zait, bai, Beñardo..! Baiñan bildur naiz, ez ote didazun, neri ere, lepoa moztuko..!

—Zuri ez, Karmele, zuri ez..! Zuri zor bait-dizut, nik, nere bizia..!

Eta ezpata-gaiñetik bi saltoak egin zituanean, Karmele'ri eman zion Beñardo'k sagar eder ura.

Eta Beñardo ta Karmele zoriontsu bizi izan ziran geroztik..!

XIV

3^o 122^o DAR-DAR..!

Dar-dar izena, bildurrez bizi zalako beti, ipiñi zioten. Eta ba'zuan, zergatik bildur izan..!

Mendi-gaiñeko bordatxo zaar batean bizi zan bere anai Ander'ekin. Eta jango ba'zuten, bordatik-kanpora ibilli bear izaten zuan, beti Ander'k, jatekoaren billa.

Zulo bat egin zioten, orregatik, bordako ateari. Ta zulo ortatik ikusten zuan Dar-dar'ek, atea nork jotzen zuan.

Emezortzin-bat urte izango zituan Dar-dar'ek, eta ogeien-bat Ander'ek.

Ipotx batekin egin zuan, bein, topo Ander'ek, eta...

—Ander..!, esan zion Ipotx'ek” Zuk eta zure arreba Dar-dar'ek ez daukazute zergatik, ain-beartsu, bizi. Eiz-asko dago emen-inguruan, eta eiztari egingo ba'ziña, beti izango zenduteke, jatekorik-asko, zuk eta zurerre arreba Dar-dar'ek.

—Ortarako, ordea, eskupeta bat eta eiz-txakur bat bearko nituzke, ta nik ez det, oiek erosteko, dirurik.

—Etzaite orregatik estutu, Ander..!

Eta Ipotx'ek txistu jo, ta eiz-txakur bi agertu ziran an, bat-batean. Eta txakur auetako batek eskupeta bat zekarren bere aoan.

Eizean igarotzen zuan, geroztik Ander'ek, egun osoa.

* * *

Galtza-gorria soñean eta
asmo txarrak biotzean,
Galtza-gorritxo agertu zan bein
Dar-dar'en borda aurrean..!

—Iriki zaidazu atea, Dar-dar..!

—Ez dizut irikiko, Galtza-gorritxo zera zu-ta..!

—Atea iriki nai ez ba'didazu, atera ezazu, eskuiko lenengo beatza ateko zulo ontatik..!

—Ez det aterako..!

—Zureztat kalte. Atea botako det, eta jan egingo zaitut oso-osorik..!

Eta atea botatzen asi zanean, bildurtu egin zan Dar-dar, eta eskuiko lenengo beatza atera zion ateko zulotik. Eta Galtza-gorritxo'k zurrupatu egin zion beatza, ta erabat zimeldua gelditu zan Dar-dar'en beatz ori..!

Dar-dar'ek etzion, ala ere, ezer esan-nai izan Ander'i.

* * *

An zan, urrungo egunean, ere, Galtza-gorritxo, ta eskuiko bigarren beatza zurrupatu zion Dar-dar'i.

Eta beste-ainbeste egin zion urungo ta urrungo egunean ere, ta gaixotu egin zan Dar-dar..!

* * *

Dar-dar'en gaixotasuna, zergatik zan, jakin zuanean Ander'ek, bordan gelditu zan, Galtza-gorritxo'ren zai, bere bi txakur eta eskopetarekin.

—Dar-dar..! Atera ezazu bostgarren beatz ori..!

—Ez det aterako..!, erantzun zion Dar-dar'ek oetik.

—Atea botako det ortaz, eta oso-osorik jango zaitut.

—Bai nai ba'dezu..! Baiñan ez det beatzik aterako..!

Eta atea bota, ta bordan sartu zanean txakur biak ekin zioten ortzaka, ta tiroz il zuan gero Ander'ek..!

Baiñan etzan orrela ipui au amaitu..!

* * *

Ander eizean ari zan batean, zaldun-antzeko bat etorri zitzaion, eta, bere jauregira joateko, eskatu zion.

Ander'ek etzuan ezer-txarrik pentsatu, ta joan egin zan.

Zaldun-antzeko gizon ura, Galtza-gorritxo'ren anaia zan, eta jauregiko presondegian sartu zuan Ander.

—Ik il uan nere anaia, ta ortxe ilko aiz i ere, esan, eta presondegi-bidean zeuden amairu ateak, giltzaz itxi zituan.

Ander gizarajoak etzekian zer egin, eta txakurrei txistuka asi zan, besterik ezean.

Gero ta gertuago entzuten zituan txakurren zaunkak, eta jauregira iritxi ziranean, Galtza-gorritxo'ren anaia il zuten lenengo, ta amairu ateak bota gero. Eta orrelaxe askatu zuten Ander presondegi artatik..!

Dar-dar ta Ander andik aurrera
zoriontsu izan ziran..!
Gauzak onela izan ba'ziran
sartu bitez kalabazan..!

XV

BILDURRIK ETZUAN MUTILLA..!

Ba'zan Naparro'ko erri-koxkor batean, bildurrik ezagutzen etzuan mutil gaizto bat. Etzuan ildakoen ari-maetan ere, sinisten, eta erritik-kanpora bota zuten bein.

Etzan batere estutu orregatik, eta Lizarrosti-aldera jo zuan.

Ba'zan an, iñor bizi etzan basarri bat. An-inguruetakoak ordea, bildur aundia zioten basarri oni, ildako baten arima bizi zala bertan-eta.

Gure mutillak, leen esan degun bezela, etzuan ari-ma oietan sinisten, eta sutondora joan, eta sua pizten asi zan trankil-trankil.

Ontan ari zala, tximinitik zetorren abots bat entzun zuan :

—Jetxiko al'naiz..?

—Bai, nai baldin ba'dezu..!

Eta gizon baten burua erori zan sutondora, tximinitik-beera.

Gure mutilla etzan orregatik ikaratu, ta eskuan zeukan burruntzia matrail batetik-besteraño sartu, ta sukaldeko baztar batera bota zuan buru ura..!

Andik une batzuetara abotsak berriro :

—Jetxiko al'naiz..?

—Bai, nai baldin ba'dezu..!

Eta giza-soin bat erori zan oraingoan tximinitik-beera. Giza-soin onek ordea, etzuan, ez bururik, ez besorik eta ez ankarik. Eta buruarekin egin zuana bera, egin zuan gure mutillak giza-soin onekin ere : burruntzian artu, ta sukalde-baztarrera bota..!

Eta beste-ainbeste gertatu zitzaion gero, besoekin eta anka biekin..!

Eta orra-nun alkartzen diran gorputz-zati guzti aiek, gizon gordin bat osatuaz..!

—Ba'gera ala ez gera..?

—Be'zerate, bai..! Baiñan etzaite neregana urreratu, ta zablitz beti, nere begien aurrean.

—Artu zazu atxurra, esan zion orduan, ildako baten arima zan gizon arrek.

—Artu zuk, nai baldin ba'dezu, erantzun zion gure mutillak.

Eta ala egin bear izan zuan ildakoaren arimak.

Eta etxetik-kanpora irten ziran biak. Ildakoaren arima aurretik, eta gure mutilla bere ondoren. Eta iturri-ondo batera iritxi ziranean, onela esan zion ildakoaren arimak:

—Egin zazu emen, zulo bat..!

—Egin zazu zuk-zerorrek, nai baldin ba'dezu, erantzun zion beti-bezela, gure mutillak.

Eta urrez-beterik zegoan, ildakoaren arimak iriki zuan zulo ura.

—Tori zuretzat urre au, esan zion ildakoaren arimak, Zuri esker, egingo bait-naiz gaur, betiko zorionaren jabe..!

Eta gure gaztearen begi-aurretik izkutatu zan bat-batean, ildakoaren arima ura.

Eta aberats biurtu zan bere errira, gure mutilla, eta oso-ondo artu zuten errian. Eta etzuan geroztik, gaiztakeri bat egin. Ondo ikasi bait-zuan, ildakoen arimak bizi zirala..!

XVI

IKASLE TONTOA..!

Alaxe zan, itxuraz beintzat. Ez bait-zuan bere ikas-taroetan arrerapen-txikienik, ere, egiten..!

—Entzun zaidak ondo, seme, esan zion, bein, bere amak. Ik ondatu dituk gure etxeko aberastasun apur-
rrak. Eta ikasteko balio ez dekan ezkeru, beste lanbide-
ren bat artu bearko dek aurten..!

—Ez, ama, ez..!, erantzun zion semeak.. Ba'da orain-
dik, txerriokian, txerri eder bat, eta orixe salduko ba'
genduka...

Eta bere semearen alde atera zan aita ere..!

Urrutira ikusi zuten lapurrak Ikasle-tontoa.

—Txerri orren jabe egin bear gaituk, esan zien danen buruak. Baiñan txerri batek ez dik, lapurreta bat egiterik, merezi. Ni joango nauk lenengo, ta daraman animalia, txerria ez, mandoa dala, esango zioat. Eta txerriaren balioa egingo diagu trabes.

Iruka etorriko zerate, gero, zuek, ta txerri ura, mandoa dala, esango dezute zuek ere.

Eta amabi ziran lapur-buruaren lagunak..!

—Ori dek ori, mando ederra..!

—Au ez da mandoa, gizona. Txerri bat besterik ez da au..!

—Ik erakutsiko ote didak, bada, neri..?

—Ni ere, ez naiz, gero, ez-jakin bat..!

—Ondo ezagutzen aut nik: Ikasle-tontoa aiz i..!

—Bai, nai ba'dezu..! Baiñan ez, txerri bat, mando batekin naasteko aiña..

—Ezetz iruditzen al'zaik..! Txerri baten balioa egiten diat, bada, apostu, mandoa dala abere au..!

Eta iruko-taldeetan asi ziran agertzen beste amabi lapurrak.

—Entzun, lagunak..! Eztabaida gogor bat sortu degu-bion artean. Onek dionez, txerria da abere au, ta nik diodanez berriz, mandoa..!

—Emen ez dago ezdabaidarako biderik..! Au mandoa ez baldin ba'da, gu ez gera gizonak.

—Mandoa..?

—Bai, gizona, bai. Mandoa..!

Eta mandoa zala, erabaki zuten, ondoren etorri ziran, beste irukoteak ere. Ta txerririk-gabe gelditu zangure Ikasle-tontoa.

Ba'zuan, ordea errian neskatxa-aberats bat lagun, eta onengana jo zuan gure Ikasle-tontoa'k.

—Zure soiñeko-eder oietako bat utzi bear didazu ordu batzuetarako.

—Nere soiñeko bat..?

—Bai..! Ta buruko zapia eta oiñetakoak gaiñera. gaiñera.

Ikasle-tontoa'k etzeukan aurpegian bizarrik, eta neska-eder baten itxurak artu zituan jantzi aiekin. Eta lapurren etxe-a'dera abiatu zan illunabarrean.

Gau illuna zan, iritxi zanean eta otza gaiñera.

—Neskatxa bat dago or-kanpoan, eta ez du barrura sartu nai.

Eta lapur aien nagusiak orduan :

—Zergaitik ez dezu, barrura, sartu nai..?

—Orrenbeste gizonaekoen artera..?

—Zergatik ez..?

—Neskatxa bakarra nauzu ni..!

—Etzaite bildurdu orregatik. Orren kezka besterik ez baldin ba'dezu, giltzapean sartuko ditugu gizon auek, eta zuri emango dizut gela ortako giltzea.

Eta beste gela batean sartu ziran biak.

—Barkatu, jauna. Baiñan ni-bezelako neskatxa bantentzat, oso gogorra da gizonaekobaten aurrean erastea. Oeratu zaite, ba zu, lenengo, ta zure ondoren oeratuko naiz ni..!

Eta lapurren-nagusia oeratu zanean, koskordun gorosti-makilla sendo bat atera zuan Ikasle-tontoa'k gonapetik, eta makilka ekin zion gogor.

—Mandoa ala txerria zan..?

—Txerria..! Txerria..!

—Mandoa ala txerria..?

—Txerria..! Ar-zazu zaku bat urre, baiñan ez nazazu, arren, geiago jo..!

Eta zaku-bat urre artu, ta irten zan gure Ikasle-tontoa lapur-etxe artatik.

Oetik-jeikitzeke gauza etzala, gelditu zan lapurren-nagusia.

Erriko mediku-barneruaren etxera joan zan, zuzen-zuzen, gure Ikasle-tontoa.

—Zuk daramakizun bezelakoxe bizar bat ezarri bear didazu, oraintxen-bertan, nere aurpegian. Eta zure erropak eta zure zaldia eman bear dizkidazu gaiñera. Lais-ter itzuliko dizkizut berriro.

Eta erriko mediku-barberua ba'litz bezela, agertu zan berriro ere, lapur-etxe aurrean, gure Ikasle-tontoa.

—Jaungoikoa'k ekarri zaitu paraje auetara, mediku jauna, esan zion lapurretako-batek. Oean daukagu gure nagusia, ta oso gaizki dago..!

—Baten-batek makildu zaitu zu, ta koskordun gorosti-makilla batekin gaiñera..!

—Egia, egia..!, erantzun zion lapurren-nagusiak.

—Etzaitu estutu ordea, Laister sendatuko zaitut, baiñan ortarako bearko dedan sendagaia, ez da oso erreza. Belar batzuek bearko nituzke ortarako, ta amabi gizonak, orrelako iturritik, beren aotan ekarriko duten ura. Nik neronek bilduko nituzke belarrak, baiñan amabi gizon oiek, nola arkitu emen..!

—Ba'ditut nik, emen, amabi gizon, eta auek ekarriko dizute, ni sendatzeko, bear dezun ur ori.

Eta urrutiko iturri batera bialdu zituan Ikasle-totoa'k amabi lapurrak.

Eta lapurren-nagusiarekin bakarrik gelditu zanean, makilla ekin zion beriro Ikasle-tontoa'k.

—Mandoa ala txerria zan..?

—Txerria, txerria, erantzuten zion, aieneka batean, lapurren-nagusiak.

—Mandoa ala txerria..?

—Ar-zazu beste zaku-bat urre, ta utzi nazazu, arren, bizirik..!

Eta bigarren zakuarekin errira itzuli zanean, biolina jotzen zuan gazte batengana joan zan gure Ikasle-tontoa.

—Etzegok, errian, i bezelako antxintxikalarik. Ez

au ba, iñork arrapatuko. Ta nik esana egiten ba'dek,
nai-aíña diru emango diat..!

—Eta zer egin bear det ortarako..?

—Gauza aundirik ez..! Biolíña artu, orrelako
etxe-aurrera joan, eta auxe abestu an :

Txerri eder bat kendu zidaten,
mandoa zala ta, emen.
Geroztik, orde, gauza onikan
ez du lapur orrek etxen.
Bi aldiz ondo makildua det,
ez da oetik jeikitzen,
gaurko onekin bialduko det
beste mundura ta AMEN.

Abesti au entzun zutenean, biolíñ-jotzaillearen a-
tzetik ekin zioten lapur guztiak, Ikasle-tontoa, bera za-
lakoan.

Nagusiaren aurrean agertu zan, orduan, Ikasle-
tontoa gorosti-makilla eskuan.

—Mandoa ala txerria zan..?

—Txerria, txerria..! Ta or dezu beste zaku-bat
urre.

—Ez, lagun, ez..! Zuk-zerorrek bialdu bear dida-
zu zaku ori nere etxera, ta zure lagun-lapurretako bate-
kin gaiñera. Ez dezu bestela, beste egun bateko bizirik
izango..!

Lapurrak, lapurren bildur diralako-edo, oso berandu etorri zan lapur ori, urrez betetako zakuarekin.

Eta ikulluan satu-erazi zion mandoa Ikasle-tontoa'k.

Ordurako ipiña zeukan, tximinitik zintzilik, gizon antzeko izugarri bat.

Eta alkarrekin afaldu ondoren, onela galdetu zion lapurak :

—Zer dala-ta daukazu gizon ori, or zintzilik..?

—Ortxe dago aspaldi ontan..!

—Zergatik, ordea..?

—Esango dizut, bada..! Zu bezelaxe gelditu zan, ori ere emen, gau batean. Eta kaka egin zuan oean. Eta orretxegatik ipiñi nuan or, zintzilik. Gogorra irudituko zazizu bear-bada, baiñan orixe dezu nere oituraetako bat..!

Berak ere, oean kaka egingo ote zuan bildurrez, nekez artu zuan-lo lapurrak. Eta talo-antzeko bat ipiñi zion orduan, ipurdi-azpian, Ikasle-tontoa'k.

Urrungo goizean, esnatu zan bezain laister, ipurdi-aldera eraman zuan lapurrak bere eskua. Ta Ikasle-tontoa'k ipiñi zion talo-antzekoa, kaka zalakoan, leiotik iges egin zuan. Eta mando-eder baten jabe egin zan Ikasle-tontoa..!

Ain-tontoa ote zan, gero, Ikasle au..?

Tonto izena eman zidaten
nere erriko dan-danak.

Tontoagorik ba'da ordea
ez ustearren jendeak..!

Ikastaroak jarraitutzeko
orain ba'ditut txanponak,
mando-gañean egingo ditut
ikastolako bideak..!

XVII

MAKILLA-KIXKI..!

Aita bat eta bere iru semeak bizi ziran, bein, basarri batean.

Eta onela esan zion, egun batean bere aitari, semerik zaarrenak :

—Aita..! Gure basarri onek ez digu laurontzat-lain ematen, eta, zuk ontzat ematen ba'didazu, urruti oietara irten nai nuke nik, zori obe baten billa..!

Eta aitak etzion ezezkorik esan.

Eta urruti batean jarri zan morroi.

Eta urte osoa morroi igaro ondoren, etxerako go-goa egin zitzaion gure mutillari. Eta nagusiak orduan,

—Nere morroi guztietan, zu izan zera leialena. Erruz egin dezu lana. Ta merezi dezun bezelako sari bat emango dizut.

Eta asto eder bat eman zion saritzat.

Asto onek, ordea, ba'zuan adu bereizi bat. "Egizak urrea", esaten ba'zitzaion, urrea egiten zuan ^{kaka korotz} ordez.

Etixerako bidean, ostatu batean gelditu bear izan zuan gau batean. Eta onela esan zion, oeratzetakoan, ostalariari:

—Kontu gero..!, ez dezaion iñork nere astoari "egizak urrea", esan..!

Eta ala agindu zion ostalariak.

Baiñan mutilla oeratu ta lotaratu zanean, ikullura jetxi zan ostalaria, ta, "egizak urrea", esan zion astoari. Ta urrea egin-eta-egin asi zan astoa..!

Ostalariak, orduan, beste asto bat ekarri zuan ikullura: urrea egiten zuan astoaren berdiñeko bat. Eta asto auxe utzi zuan ikulluan.

Mutilla etzan aldaketarekin oartu, ta, etxeratu zanean, onela esan zien aita ta bere bi anaieri:

—Etzaitetze, geiago estutu, gu izango gera-ta erri ontaño aberatsenak..!

Eta izara bat ekarri-erazi zion aitari.

Zabaldu zuan izara au astoaren atze-aldean, eta..

—Egizak urrea, esan zion astoari.

Baiñan astoak etzuan urrerik egiten..!

—Egizak urrea, deadar egin zion berrira.

Astoak, ordea, etzion urrerik egiten..!

—Egizak urrea..!

Eta urre orde^{Koroitz}z, ~~kaka~~-pillo aundi bat egin zion orduan astoak izara-gaiñera.

—Ea nik zori obeagoa izaten dedan, esan zion, orduan, erdikoak aitari.

Eta urruti batera joan zan au ere, zori obeagoaren billa.

Eta urtea igaro zanean, beste anaiari bezelaxe esan zion, oni ere, bere nagusiak:

—Leiala ta langillea izan aizelako, sari eder bat emango diat.

Eta mai bat ekarri zion.

”Gerta zak bazkaria”, esaten zitzaioenean, jatekorik ederrenez betetzen zan mai osoa.

Arro zijoan gure mutilla etxera, ta, gaua etorri zanean, ostatu batean sartu zan.

—Kontu gero..!, esan zion ostalariari. Ez dezaiola inor mai oni "gerta zak bazkaria", esan.

Baiñan gure mutilla lo-zurrunka asi zan bezein la ister, maira urreratu zan ostalaria, ta, "gerta zak bazkaria", esan zion maiari.

Eta baita maiak bazkari eder-askoa gertatu ere..!

Arotz batengana joan, ta ura bezelakoxe beste mai bat egiteko agindu zion ostalariak. Eta mai auxe ipini zuan gure mutillaren mai-ordez..!

—Aita..!, esan zion aitari. Joan ziran betirako gure etxeko goseak. Jatekorik gozoenak emango dizki-gu, emendik-aurrera, mai onek..! Begira, begira...

Eta etxeko guztiak mai-inguruan eseri ziranean...

—"Gerta zak bazkaria", esan zion gure mutillak maiari Baiñan mai ark etzuan bazkaririk gertatzen..!

Anairik-gazteenak orduan :

—Nik ez det zuek-biok baiño gutxiago izan nai, ta ba'noa, ni ere or-zear, zori obeagoaren billa..!

Eta etxetik irten, eta urruti batera joan zan anairik-gazteena ere..!

Eta au ere, ondo saritu nai izan zuan bere nagusi-ak.

—Ez det gauza aundia, baiñan ba'dik makilla onek bere adurra. "Makilla-kixki", esaten zaion bakoitzean, makilla asten det, eta ez dik makildu-gabe ezer uzten, dala gizona, dala aberea, dala edozer-gauza. Ta orrela jarraituko dik, ik gelditzeko, aginduko ez diokan artean..!

Eta ain-zuzen, beste bere bi anaiak gelditu ziran ostatu berean gelditu zan anairik-gazteena ere.

Eta onela esan zion, onek ere, ostalariari:

—Kontu gero..!, ez dezaiola iñork nere makilla oni "makilla-kixki" esan..!

Ostalaria etzegoan ortarako, ordea. Ta gure mutilla oeratu zan bezein laister, "makilla-kixki" esan zion makillari. Ta bai au, lanean asi ere..!

Ango makilkak..! Ango txikizioa..!

Aieneka batean etorri zan ostalaria gure mutillaren lo-gelara.

—Geldi-erazi ezazu, arren, makilla au..!

—Ez..! Ez det geldi-eraziko nere anaieri ostutako astoa ta maia ematen ez dizkidazun artean..!

—Oraintxen emango dizkizut. Baiñan geldi-erazi ezazu, arren, makilla au..!

Baiñan gure mutillak etzuan makilla geldi-erazi,
eman zizkion astoa ta maia, bere anaieri ostutako aiek
zirala, ziur jakin etzuan artean..!

Eta urrea egiten zuan asto arekin, eta bazkaria
gertatzen zuan mai arekin eta orrelako makillak ema-
ten zituan makilla arrekin, zoriantsu bizi izan ziran,
geroztik, aita ta iru anaiak..!

XVIII

BERASTEGI'KO ERREMENTARIA..!

Etzan ixildu ere egiten, aren mallu-otsa..! Tinki-tankak, tinki-tankak egun osoan, eta, ala ere, etzan bein-ere aberastu. Lanerako griña-geiegi zuan gizajoak..!

Eskale-antzeko bat etorri zitaion bein sute-gira, ta gau-artarako ostatu eskatu zion.

—Nik ez det, iñorentzat ostaturik..!

—Elurra mara-mara ari da, gizon. Eta or-kanpoan uzten ba'nauzu, elurrak estaliko nau biar-goizerako..!

—Eta neri, zer..?

—Ara, gizon..! Etxean artu nai ez baldin ba'nauzu, utzi zaidazu, besterik ez ba'da ere, sute-girako ate-atzean txoko bat. Ez dezu biar-goizean, damurik izango..!

—Nor zaitugu ba, zu..?

—Ori da gutxiena..! Ate-atzean txoko bat besterik ez dizut eskatzen, zure etxean artu-nai ez nauzun ez-kero...

Eta urrun-goizean, ate-atzean arkitu zuan eskale antzekoa.

—Ba'dezu, esnatzeko ordua. Lanean ekin bear diot nik-eta..!

—Ain goiz..?

—Errementariak zer gerala, uste dezu ba, zuk..!

—Ondo dago, gizon..! Nik ez dizut, trabarik egin nai. Baiñan zuk uste ez ba'dezu ere, Jainkoa-bera naiz ni, eta egin didazun mesede onegatik, eskatu zaidazu, nai dezun guztia..

—Jainkoa zu..? Ez nauzu ba, tontotzat artuko..?

—Bai, gizona, bai..! Jainkoa naiz, jainko-itxurarik ez ba'det ere..!

—Eskatzearekin ezer galtzen ez dan ezkeru, Jainkoa ba'zera ta ez ba'zera, biladu zaidazu, inpernutik ba'da ere, mallukari on bat..!

Eta biaramonean, sutegian zai zeukan, eskatu zuan mallukari ori.

Alper-xamarra zan, ikusten danez, inpernutik etorri zitzaion mallukaria. Ta laister aspertu zan, ango lan-egin-bear arrekina. Eta errementariari ezer esan-gabe, inpernura itzuli zan berriro. Inpernuko lana, sutegi artakoa baiño arinagoa ikusten bait-zuan..!

Andik egun batzuetara, beste mallukari bat zuan sutegian zai. Lotsagabea benetan..!

—Artu zak ik, mallu aundia, ta txikia artuko diat nik, esan zion errementariak.

—Ez, errementari, ez..! Nik ez det mallu aundirik artuko, eta artu zazu, zuk-zerorrek, nai ba'dezu..!

—Nork agintzen dik emen..?

—Zuk jakingo dezu ori..!

—Nik..!

—Ta..?

—Nik nai dedana, egiten dek emen..!

—Besteren-batek egingo du, nik ez, ordea..!

Bere-onetik atera zuten errementaria, deabruaren erantzun aukeratu, eta berotzen zeuzkan tenazarik aundienak artu, eta lepo-lepotik eldu zion deabruari.

Etzan orrekin, errementariaren asarrea baretu ordea, ta sua zirikatzeke burnia artu, ta izugarritzkoak eman zizkion gañfiera..!

Bere burua aske-ikusi zuan bezain laister, inpernura iges egin zuan deabruak..!

Eta noizbait bear, eta il zan, bein, Berastegi'ko errementaria ere. Ta zeruan jo zuan atea..!

—Nor dek or, ate-joka..?, galdetu zion Jainkoa'k San Pedro'ri.

—Berastegi'ko errementaria, erantzun zion onek.

—Orrentzat ez dek, zeruan, lekurik. Bein eskatunioan gau-ostatua, ta etzidan eman nai izan. Joan dedilla ba, inpernura..!

Eta inpernurako bidea erakutsi zion San Pedro'k.

Tan-tan-tan. jo zuan orduan inpernuan, Berastegi'ko errementariak.

—Nor da or..?, galdetu zuan deabruetako batek.

—Berastegi'ko errementaria..!

Eta Berastegi'ko errementariaren izenak bakarrik, izutu zituan inpernuko deabru guztiak, eta milla atagaz itxi zioten atea..!

—Emen ez diagu ire bearrik, eta oa, nai ba'dek, zerura.

Eta zerura biurtu bear izan zuan berriro..!

—Eta nor dek orain..?

—Berastegi'ko errementaria berriro, Jauna..!

—Ez al'diat ba, len ere, inpernura bialtzeko esan..?

—Bai, Jauna, bai..! Baiñan an ere, ez omen dute artu nai..

—Arrigarria dek benetan..! Orain-artean etzigu-tek iñor biurtu. Ez det, prenda ona izango. Ta oraindik munduan diran beste errementariak, ez dituk ori baiño obeagoak izango, noski. Ta gauza-bera gertatuko zai-guk aiekin ere..! Zer-edo-zer asmatu-bearrean gaituk, Pedro..!

Eta baita asmatu ere..!

—Berak neri egiña, egin akiok ik ere, berari. Ar-

tu zak ate-atzean. Eta ez dedilla beste iñor, or sartu. Ortxe artu bearko zituagu-ta, munduan diran beste errementariak ere..!

—Inpernuan nai ez dituztelako..?

—Bai, Pedro, bai..! Inpernurako ere, gaiztoegiak diralako..!

Eta orregatik, malluketan ari diranean, onela a-besten dute gaurko errementariak:

Zuri eskerrak, Berastegi'ko
errementari gaiztoa,
gurea degu goiko zeruan
ate-atzeko txokoa...!

XIX

ARRAUTZA ARRIGARRIAK..!

Ba'zan, mutil-zaar eta aberats baten etxean, nes-kame zegoan emakume alargun bat. Eta bi ume zituan.

Ikastolatik zetozen batean, txori-kabi bat arkitu zuten, eta bi arrautza zeuden kabi ortan.

Onela zion arrautza aietako batek: NI JANGO NAUANA, GOTZAI IZANGO DA. Ta besteak berriz: NI JANZO NAUANA, ERREGE IZANGO DA..!

Etixeratu ziranean...

—Ama, esan zioten bere amari. Begira, nolako arrautzak arkitu ditugun txori-kabi batean..?

Eta bere nagusiari erakutsi zizkion amak arrautza aiek. Eta onela esan zion orduan, nagusiak:

—Jan ditzagun biok arrautza oiek, eta ezkondu gaitezen gero.

—Ez, erantzun zion amak. Ezkondu gaitezen lenengo ta gero jango ditugu arrautza oiek..!

Eta ezkontzera joan ziranean, onela esan zion nagusiak sukaldeko neskameari:

—Gu elizatik etorriko geranerako, gertu izan bear dituzu arrautza oiek..!

Mutillak ordea, etziran tontoak. Eta nagusia-ta elizan ziran bitartean, sukaldera joan, eta jan egin zituzten, sekaldekoko neskameak gerturik zeuzkan arrautzak.

Asarratu zan nagusia biziro, ta etxetik-kanpora bota zituan bi mutillak.

Bidean zijoazela, iru gizon arkitu zituzten eztaba-ida bizian.

—Zer dala-ta, zuen eztabaida au..?

—Ara bada..! Iru gauzen jabe gera, ta ezin asma-tu degu, iru gauza oiek alkarren artean, nola banatu.

—Eta zertzuk dira ba, gauza oiek..?

—TXAPEL AU BAT. Txapel au jazten duana, ezin-ikusia egiten da. Ta iñork ikusi-gabe ibilli leike batetik bestera. KAPA AU BESTEA. Kapa au soñean duanak, berak nai duan lekura eramán dezake edozer gauza. TA POLTSA AU IRUGARRENA. Ez da beñiere agortzen, naiz-eta dirua atera ta atera...

—Ori besterik ez ba'dezute, ez da zailla partiketa... Ikusten al'dezute, an-urrutiko zugaitz ura..? Egin zazute arutzarañoko laisterketa bat, eta lenengo etorriko danak, aukera dezala berak nai duana. Egin dezala berdin bi-

garrenak. Eta gelditu dedilla, besteak uzten dutenarekin, irugarrena..!

Eta aiek laisterka ekin ziotenean, iru gauza aiek artu, ta uri aundi batera iges egin zuten bi mutillak.

Bein urian, onela esan zion batek besteari :

—Nik gotzai izan nai nitek, eta emaidak, nere ikastaroak egiteko, beariko dedan dirua.

Besteak orduan, Erregearen alabarengana jo zuan, eta...

—Nik errege izan nai nuke, esan zion. Ortarako ordea, zurekin ezkondu bearra daukat. Artzen al'nauzu bada, zure senartzat..?

—Eta zer emango ziazuke, ezkon-sari bezela..?

—Sekula agortzen ez dan diru-poltsa au..!

—Utzi zaidazu, ikusi dezadan..!

Eta Erregearen alabak lapurtu egin zion diru-poltsa ura..!

Etzan orregatik, gure mutilla kukuldu. Artu zuan KAPEA, jantzi zuan TXAPELA, ta iñork ikusi-gabe sartu zan errege-alabaren gelaraño.

An arkitu zuan agortzen etzan POLTSEA. Bildu zuan gero Erregearen alaba KAPA artan, eta leize-zulo bateraño eraman zuan, ikusi-ezina egiten zuan TXALA-PARI esker.

—Nola ekarri nauzu onuntz..?, galdetu zion neskatxak.

—TXAPEL ONEK ezin-ikusia egiten du bat, eran-tzun zion besteak. Eta ez det orregatik, zure gelaraño sartzeko, iñungo eragozpenik izan..!

—Ekarri ordea, nola ekarri nauzu..?

—Etzaitut nik-neronek ekarri. NERE KAPA ONEK ekarri zaitu. Auxe da, izan ere, KAPA ONEN adurra: ar-tzen duan guztia, nora agindu, ara eramaten du. Arri-garria benetan e..?

Eta ortan ari zirala, gure mutilla oartzera-ko, bere buruan zeukan Erregearen alabak txapel arrigarri ura, ta ezin ikusi zuan mutillak. Eta an gelditu zan gizara-joa, ez TXAPEL, ez KAPA ta ez POLTSA.

Naigabez artu zuan urirako bidea. Erabat galduak ikusi zituan, errege izateko, bere asmoak. Eta goseak eraginda-edo, basarri batera jo zuan. Ba'zan antxe, zu-gaitz batean, piku-ederrik asko..!

—Salduko al'dizkidazu piku batzuek..?

—Bai, pozik..! Baiñan ez dira onak..!

—Ez dute ba, itxura txarrik..!

—Emen-inguruetako ederrenak dira itxuraz, bai-ñan piku oietako bat jaten duanari, adar bat irtetzen zaio kopeta-erdian.

—Eta ez al'da, adar ori kentzeko, sendagairik..?

—Bat besterik ez..! Zugaitz onetxen izardia da sendagai bakarra.

Eta otarka bat piku erosi zituan gure mutillak.

Ba'zuan urian, Erregearen etxera jatekoak-eta eramaten zituan, lagun bat. Eta onengana joan, eta...

—Erregearentzat bildu zituat piku eder auek, esan zion. Eta Erregeari eraman bear dizkiok biar. Nik egin nai diodan emaitza bat dek. Ez diok bada, nere izenik eman bear. Eta galduan gelditu ez adin, otzok iretzat ontzako-urre au..!

Eta bazkalduta, pikuak jaten ari zirala...

—Aita, esan bere alabak Erregeari. Adar bat irten zaizu kopeta-erdian..!

—Baita zuri ere, ama..!

Eta Erregeak orduan :

—Baita iri ere, alaba..!

Egiñalak egin zituzten jauregiko sendagille jaunak baiñan alperrikoak izan ziran aien egiñal guztiak. Etziran adar aiek kentzeko gauza..!

Gure mutilla agertu zan orduan jauregian, eta be-reala kendu zion Erregeari bere adarra. Berdin egin zuan Erregeiñakin ere. Ta alabaren txandea etorri zanean...

—Zuri ez dizut kenduko, esan zion, nere TXAPELA,
nere KAPEA ta nere POTSEA biurtzen ez dizkidazun ar-
tean..!

Eta biurtu zizkionean, onela esan zion orduan gu-
re mutillak :

—Ez al'det, Errege baten alabarekin ezkontzeko,
naiko ezkon-sari..?

—Ba'dezu, bai, erantzun zion Erregearen alabak.

Eta besterik-gabe, antxen ezkondu ziran biak.

Ipui onetan esandakoak
sartu bitez kalabazan
irten ditezen, egun batean,
Durango'ko plaza-plazan..!

XX

SENDAGILLE AZKARRA..!

Ba'zuan, bai, zergatik asarre egon gizajoak..!

Etxe-bete ume zeuzkan, eta ezin billatu zuan aien-
tzako jatekorik. Eta ori ezer ez ba'litz bezela, bere au-
zoan bizi zan beste gizon batek, etzuan umerik, bai
ordea aberastasunik asko. Ta ezberdintasun orrek asa-
rratzen zuan gizajoa..!

Eta leengoak naiko ez ba'lira bezela, beste ume bat
eman zion, bein, bere emazteak. Eta an irten bear izan
zuan gizajoak, ume ura bataioan jasoko zuan bateren-
baten billa. Eta gizon bat arkitu zuan bidean.

—Zer zabiltz..?, galdetu zion gizonak.

—Nere ume au jasoko duan bateren-baten billa
nabil..!

—Nik-neronek jasoko dizut, zuk nai baldin ba'de-
zu beintzat.

—Eta nor zaitut, bada, zu..?

—Ez al'nauzu ezagutzen..? Jainkoa bera nauzu
ni..!

—Barkatu, Jauna, erantzun zion gure gizonak. Baiñan etzaituk zu, ortarako nai..!

—Zergatik ez nauzu ba, nai..?

—Gauzak ondo egiten ez dituzulako, nere ustez. Neri, beartsu bat besterik ez naizen oni, orrenbeste ume eman dizkidazu, ta nere auzoko orri ez diozu bat-bakarra ere eman ,erriko aberatsena izan arren. Orregatik ez zaitut nere ume onen aita-ponteko nai..!

Eta etzan Jainkoa orregatik asarratu..!

Eta bidean-aurrera beste gizonetzko bat arkitu zuan, eta galdera berdiña egin zion onek ere :

—Zer zabiltz ain-estu, gizon..?

—Nere ume au bataioan jasoko duan bat, billatu nai nuke.

—Ori besterik ez ba'dezu, nik-neronek jasoko dizut..!

—Eta nor zaitut zu..?

—Eriotza..!

—Eriotza..?

—Bai, gizona, bai..! Ez al'nauzu ezagutzen..?

—Ondo dago..! Gizon guztiak berdiñak dira zuretzat eta ez dezu bereiztasunik. Zu izango zera ba, nere ume onen aita-ponteko.

Eta umea bataiatu-ondoren, onela esan zion Eriotza'k gure gizonari:

—Emen-inguruetako sendagillerik ospatsuena egin-

go zaitut nik, eta aberats biziko zera emendik-aurrera.

—Sendagille ni..?

—Bai, gizona, bai. Ta ospatsuena gaitiera. Gaxo batengana joaten zeranean, an ikusiko nauzu ni beti. Ta gaxoren buru-aldetik baldin ba'nago, gaxo arrek ez du sendatzerik, ta eman dezaiotela elizakoak leenbaitleen. Gaxoren oin-aldetik baldin ba'nago berriz, gaxo ura sendatu egingo da, ta jan eta edan dezala nai duan guztia..!

Eta Eriotza'k esan bezelaxe, sendagillerik ospatsuena izan zan gure gizona. Danak asmatzen bait-zituan, eta ez bait-zitzaion inor, elizakorik gabe iltzen..!

Baiñan Eriotza etzan, Jainkoa bezein, errukitsua, ta bein ordua etorri ezkeru, etzion inori barkatzen. Eta bidera irten zitzaion bein.

—Ta..?

—Milla esker..! Oraintxe bai bizi naizela ondo..!

—Egia da. Baiñan zureak egin du..!

—Zer esan nai didazu orrekin..?

—PATER NOSTER bat errezatzeko astia ematen dizudala bakar-bakarrik..!

—Besterik ez..?

—Besterik ez..!

—Eta zer egin bear dute, aitarik gabe, nere ume-txo gaixoak..?

—Ori ez da nere kontua..!

Eta orduan konturatu zan gure sendagille berria,

ankerra zala Eriotza. Ta leen baiño kezkatiago bizi izaten asi zan. Ez bait-zeukan otoitz-egiterik..! Eta damu zan orduan, bere umearen aita-ponteko Jainkoa ez auke-ratzea.

Eta kezka onekin bizi zala, bere burua urkatu zuan ^{du} gizon bat ikusi zuan bein, zugaitz-adar batetik zintzilik. Eta aretzaz ^{du} kupiturik, PATER NOSTER bat errezatu zuan ^{du} oartu-gabe. Eta bertan il zan bereala, gure sendagille azkarra..!

Jaungoiko onak gogoan zitun
aren lengo neke danak,
ta erruki aundiz zeruan zuan
betiko sartu ^{du} Jaun Onak..!

V

EUSKAL-ERRIA'REN ETORKIZUNA..!

Jaialdi baterako antzerkitxoak



ANTZEZLARIAK = I ANDEREÑOIA.

AITOR.

ARABA.

BIZKAI.

GIPUZKO.

NAPARRO.

BERTSOLARIA.

BENAPARRO.

LAPURDI.

ZUBERO.

II ANDEREÑOIA.

MIKEL.

AINHOA.

TXABER.

MIRENTXU.

ASIER.

AMAIA.

ANDER.

III ANDEREÑOIA.

TXISTULARIA.

IKUSLEAK.

- OARRAK:
1. Andereñoak, ikastolako egiazko andereñoak izango dira.
 2. Ikastolako ume-azi batek izan leike Aitor. Eta orrelako umerik ez ba'lego, izan bedi irakasleetakoa bat.

3. Ikastolako umeak izan bear dute beste danak,
eta neskea edo mutilla izan leike bertsolaria.

4. Txistularia ez da azken- ordurarte iruditegian
agertuko..!

IRUDITEGIA. Sukalde bat, baiñan ez, edozein basarrietako sukalde bat, jauregi-zaar eta eder bateko sukaldea baizik. Tximini-ederreko su-bajua, narruzko-eserlekua duten aulki bat edo beste, ta mai sendo bat.

I AND.

Jaun-andreak..; EUSKAL-BRRI du bere izena jauregi onek. Munduko jauregietan zaarrenetako bat, zaarrena ez baldin ba'da..!

Baztar-ederrak ditu: mendiak ugari,, lurzabalak ez gutxi, belardiak asko, basoak ez gutxiago ta itxaso-zati eder bat.

Euskal-erria'n zaudete beraz.

Ezagutu ditzagun orain bertako biztanleak.

Aitor agertuko da ikusleen ezker-aldetik. Zaarra izan arren, gordiña agertzen da oraindik. Illea luzea du, ta ardi-narruz jantzia dator, leengo euskaldunak bezela. Abarkak eta mantarrak anka-bietan eta aragi-bizian belaun-buruak.

Aitor degu au: euskaldunon aita..!

AITOR

Aitor naiz, bai..! Ta euskaldunen aita. Ta euskaldunen aita-izateak ematen dit pozik aundiena. Baita kezkarik aundie-

na ere..! Noizarte izango ote naiz izen orren jabe..?

I AND. Euskaldunok naiko degun arte..!

AITOR Egia diozu, andereño: euskaldunak naiko dezuten arte..! Baiñan noiz-arte naiko ote dezute ori euskaldunak..? Noiz-arte..?

Eta Aitor ikusleen eskui-aldeetik izkutatu-ko dan artean, oiartzunak, gero ta urrutia-go "noiz-arte", "noiz-arte" erantzungo du iru biderrez.

Araba, Bizkai, Gipuzko, Naparro, Benaparro, Lapurdi ta Zubero agertuko dira, bana-banaka, ikusleen ezker-aldeetik.

Ardi-narruzko jantzi ordez, beso-motzeko soñeko bat ekarriko dute auek, eta bere eskualdeko ikurra, nor-berak, bere soñekoan.

Abarkak eta mantarrak anka-bietan, eta aragi-bizian belaun-buruak.

I AND. Araba dezute au..!

ARABA Eta Gazteiz degu arabarrok gure uri-buru. Mendi batzuek baldin ba'ditugu ere, lauak dira gure lur geienak. Gaztel-erriakin ditugu gure mugarik zabalena, eta

ortik datorkigu, euskaldun bezela, gure arriskorik aundiena..!

Eta ikusleen eskui-aldetik izkutatuko da Araba. Ta ikusleen ezker-aldetik agertuko da Bizkai.

I AND. Bizkai dezute au..!

BIZKAI Eta Bilbo degu gure uri-buru. Ta burnimeatzak eta Ibaizabal'eko lantegi aundiak, iparraldera bota digute gure euskera. Gordeko al'gaitu, ala ere, euskaldun Gernika'ko gure arbola santuak.

I AND. Zutik, jaun-andreak..! Erantzi zuen txapelak gizonezkoak, eta abestu dezagun danok, gartsuki, GERNIKA'KO ARBOLA..

IKUSLEAK (Zutik)

Gernika'ko arbola
da bedeinkatua
euskaldunen artean
gutziz maitatua.

Gernika'ko arbola
da bedeinkatua
euskaldunen artean
gutziz maitatua

Eman da zabal zazu

munduan frutua
adortzen zaitugu
arbola santua.

Eman da zabal zazu
munduan frutua
adoratzen zaitugu
arbola santua.

Gora Jaungoikoa ta
Lege Zarra. Gora..!

Txistulariak lagunduta, errezago abestuko
luteke ikusleak GERNIKA'KO ARBOLA.

BIZKAI Eskarrikasko, euskaldunok..!

Eta ikusleen eskui-aldetik izkutatuko da
Bizkai, ta ikusleen ezker-aldetik agertuko
da Gipuzko.

I AND. Eta emen dezute Gipuzko: Euskal-erri'ko
biotza. Atzerritarrekin mugarik ez duan
Euskalerriko lurralde bakarra, ta bere txi-
kian aundiegia egiten ari zaigun erria.
Donosti du bere uri-buru.

GIPUZKO Aundi-izateak ez luke kalterik, euskal-
dun iraungo ba'nu..!

I AND. Eta iraungo al'dezu..?

GIPUZKO

Ez dakit..!

Eta ikusleen eskui-aldetik izkutatuko dan artean, oiartzunak, gero ta urrutiago "ez dakit", "ez dakit", "ez dakit" erantzungo du iru biderrez.

Naparro agertuko da ikusleen ezker-aldetik.

NAPARRO

Barkatu, andereño. Baiñan nik-neronek egin dezaket nere buruaren aurkezpena.. Naparro nauzute, ta Iruña det nere uriburu.. Prantzi ta España-arteko bidea nintzalako-edo, nik jaso bear izan nituan, bai alde bateko ta bai besteko erasorik aundienak.. Euskal-erria'k ala ere, ez du gure Erregeen-babesean aiñeko batasunik ezagutu.. Baiñan batasun orrek etzuan, bear-aña, iraun, eta orduan galdu genduan, zoritxarrez, gure askatasuna, Ta gure askatasunarekin gure izkuntza ere..!

Baiñan ba'degu Aralar'en gure saindutegia: Mikel. Mikel, Mikel gurea, zaizu, zaizu Euskal-erria..!

Abestu, euskaldunok..!

Eta ikusleen eskui-aldetik izkutatuko dan artean, abestu bezate ikusleak.

IKUSLEAK Mikel, Mikel, Mikel gurea
zaizu, zaizu Euskal-erria..!

Eta iruditegi-atzetik agertuko da Bertsolaria.

BERTSOLA. Barkatu, andereño..! Bertsolari bat nauzu, ta zure jardun eder au moztuko ba'det ere, bertso bat abestu nai nieke ikusleeri, Benaparro, Lapurdi ta Zubero emen agertu baiño leen..! Ematen al'didazu, ortarako, baimenik.

I AND. Emango ez dizut, ba..!

BERTSOLA. Entzun danok bada..

Une onetan aipatzeko da
gure Bidaso ibaia,
Jangoiko onak Euskal-erria'n
apaingarri ipiñia..!
Gure betiko etsaiak, orde
ausi-nairik gure erria,
muga biurtu ziguten eta
zatitu Euskal-erria..!

Txaloak joko dizkio Andereñoa'k eta txalartearen izkutatuko da Bertsolaria iruditegi-atzean.

Benaparro, Lapurdi ta Zubero agertuko dira ikusleen ezker-aldetik.

I AND. Eta auetxek ditugu, bertsolariak esan digun
Bidasoa-ibaiko muga galgarri orrek, gu-
gandik aldendu zituan gure iru anaiak:
Benaparro, Lapurdi ta Zubero. Izan bedi
zuentzat gure ongi-etorririk jatorrena..!

BENAPARRO Benaparro nauzute ni, ta Donibane-Gara-
zi dut nere uri-burua.

LAPURDI Lapurdi berriz ni, ta Baiona dut nere uri-
buru.

ZUBERO Eta Zubero ni, ta Maule dut nere uribu-
rua..!

 Eta "Agur Zuberoa" jotzen asiko da txis-
tularia iruditegitik-kanpora, ta txistularia-
rekin-batera abestuko dute ikusleak ere.

IKUSLEAK Agur, Zuberoa,
bazar guztietako txokorik ederrena.
Agur, Aterratze,
zurekin ditut ametserik goxoenak;
biotzaren erditik
bortzetan jalki ditadazut asperena:
zu utzi geroztik
bizi naiz tristerik, abandonaturik,
ez baita erririk
Paris ez besterik,
zu bezalakorik.

Sor-lekua utzirik gazte nintzalarik
Paris'era joan nintzan kuraiez beterik,
plazerez gose eta buruan arturik
bear nuala alegre bizi;
bortzetan geroztik negar egiten dit
Zuberoa'gati. (bis)

Eta Ikusleak abesten ari diran bitartean
izkutatuko dira, ikusleen eskui-alde-
tik, Benaparro, Lapurdi ta Zubero.

I AND. Eta barkatu, jaun-andreak, nere aurkez-
pen ontan aspergarri izan ba'naiz ere.

Eta Aitor agertuko da ikusleen eskui-alde-
tik.

AITOR Ez daukazu, zergatik barkamena eskatu,
andereño. Ederra izan bait-da, eman de-
zun ikasbidea.

I AND. Ala iruditzen al'zaizu, Aitor..?

I AND. Asko bait-dira gure artean, ZAZPIRAK-
BAT ikurra, paparrean eta berebilletan era-
biltzen dutenak, baiñan gutxi dira, zori-
txarrez, ikur orrek, zer adierazi nai duan,
dakitenek.. ZAZPIRAK-BAT..!

I AND. Gure Jainkoarekin gertatzen zaigunaren

antzeko zerbait: lurraldeak zazpi izanar-
ren, bakarra dala, alegia, euskal-erria.

AITOR Orixe da bai, ZAZPIRAK-BAT'ek esan nai
duana. Ederki, andereño. Baiñan beste
mesede bat eskatu nai nizuke orain.

I AND. Zuk nai dezuna, Aitor..!

AITOR Akullu-antzeko zazpi makilla nai nituzke.

I AND. Makilka asteko..?

AITOR Ez, andereño, ez..! Makilka asteko ez, ne-
re zazpi semeeri, ta emen bildu diran
ikusle guztieri ikasbide eder bat emateko
baizik.

I AND. Ortarako nai baldin ba'dituzu, laister
izango dituzu, Aitor.

AITOR Nik-neronek lagunduko dizut, andereño.

Eta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko dira
Aitor eta I Andereñoa.

Iruditegi-atzetik agertuko da II Andereñoa.

II AND. (Kanpoan jolasean ari diran umetxoeri)
Jolaserako ordua bukatu da, ta ikastolara
etorri bear dezute orain..!

Eta ikusleen ezker eta eskui-aldetik sartuko dira ikastolako umetxoak. Neska-mutillak dira, ta lurean eseriko dira.

Auen aurrean, eta aulki batean, eseriko da II Andereñoa, ikusleak ondo ikusiko duten eran.

II AND. Ipui bat esan nai dizutet, eta jarri zaitetzte lurean, umetxoak.

MIKEL Alaia al'da ipuia..?

II AND. Ez, Mikel..! Ez da alaia, negargarria baizik eta euskaldunontzat batez-ere.

MIKEL Neri etzaizkit ipui-itunak atsegin..!

II AND. Gaurko-au atsegingarri izango zaizu, ordea.

MIKEL Bai..?

II AND. Bai, Mikel, bai..! Ama-Euskera gaixoa-ren ipuia bait-da. Entzun zaidazute bada, arretaz...

Zuek dakizutenez, zazpi dira Euskal-erria osatzen duten lurak. Ementxen izan ditugu arestian... Esango al'zizkidazuke, zuk Ainhoa, zazpi lurralde oien izenak..?

AINHOA Esango ez dizkizut bada..? Ez al'naiz ba,

ni ere euskalduna..? Araba, Bizkai, Gipuzko ta Naparro, Lapurdi, Zubero ta Bena-parro..!

II AND. Ederki, Ainhoa..!

AINHOA Eta utziko al'didazu, nere aitak erakutsi didan bertso bat kantatzen..? Pello Mari Otaño'rena izan bear du gaiñera...

II AND. Kanta ba, bildurrikan gabe, Ainhoa.

AINHOA Arbola baten zañetikan
sortzen diran landariak
bezela gera, Bidasoa'ren
bi aldetako jendiak:
berdiñak dira gure jatorri
oiturak eta legiak,
Ama-Euskera'k magal berian
azitako senideak..!

II AND. Egia dio Pella Mari Otaño'k, Ainhoa.
Ama-Euskerak azitako umeak gera euskaldunok.

Baiñan gure erri onek, Gipuzko'k ezik,
muga zabalegiak izan ditu atzerrietako
erriekin. Eta ortik asi zan, asi ere, gure
Ama-Euskara'ren naigabea. Muga-errietatik
kanpora bota bait-zuten lenengo.

TXABER Zergatik, ordea..?

- II AND. Nik ez dakit bada, Txaber..! Gorrotoa ere ba'digutela, esango nuke askotan.
- TXABER Gorrotoa..?
- II AND. Edo antzeko zerbait..! Gaur-bertan ez du gure Euskera'k, erriko eskolaetan, sarre-rarik. Eta oraindik urte gutxi, zigorkatu egiten zuten eskola oietan, euskeraz itz-egiten zuan oro.
- MIRENTXU Ez da ori, egia izango..?
- II AND. Bai, Mirentxu, bai..! Ta au da okerrera : ontzat ematen zutela, orduko euskaldun askok eta askok, irakasle aien jokabidea.
- MIRENTXU Nolatan, ordea..?
- II AND. Jakintza-gaietan, aurrera egiteko, eragoz-pen bat zala euskeraz itz-egitea, ta kit-to..!
- ASIER Eta ez al'da, ala..?
- II AND. Zergatik izan bear du, Asier..? Munduko beste izkuntzak ez baldin ba'dira, zergatik izan bar du euskerak, jakintzarako eragozpen bakarra..?
- Aitzaki auek zirala-ta, beren etxeetako atear itxi zizkioten euskaldun askok,

Ama-Euskera'ri..! Mingarria benetan. Eta ala ere, urte batzuek geroago asiko zan gure Ama-Euskera'ren benetako nekaldia.

Gure lantegi-tximinietakoa kea, ipar-aizeak zabaldu zuan or-beera, ta bizitza egokia-go baten billa-edo, asi ziran atzerritarrak, Euskal-erri'ra etortzen: banaka lenengotik, eta pilloka gero. Ta erdaldun biurtu zizkiguten gure lurraldeetako uri-buruak. Eta Ama-Euskera'rentzat etzan lekurik, etxe banaka-batzuetan ezik, ez Gazteiz'en, ez Bilbo'n, ez Donosti'n, ez Iruña'n, eta ezta Bidasoaz-aruzko Maule, Donibane-Garazi ta Baiona'n ere..!

Eta erri txikietan izkutatu bear izan zuan Euskera'k bere burua, lotsaren-lotsez... Baiñan ez luzarorako..!

Ola-gizon biurtu zitzaigun basarritarra ere. Eta leen arto-soroak-eta ziranak, burni-ola biurtu ziran. Eta erri txikietan ere, erri aundietan gertatua, gertatu zan. Eta mendira jo bear izan zuan azkenean, babes-billa, gure Ama-Euskera'k..! Baiñan mendiko neskatxak etzuten kalekoak baiño gutxiago izan nai, ta erderari eldu zioten kalekoak bezelaxe... Gure Euskera-zarra baiño dotoreagoa billatzen zuten, noski, erdera...

- AMAIA Eta zergatik izaten da ori..?
- II AND. Zer, Amaia..?
- AMAIA Mutil geienak euskeraz itz-egiten baldin ba'dute, zergatik egin bear degu erderaz neskak..?
- II AND. Arrazoi dezu, Amaia..! Baiñan ba'dakizu, gaur zer esaten dan: arrazoi dezu, baiñan kartzelara joan bear dezu. Ta erderaz jarraituko degu, zoritxarrez, neskak.
- Baiñan ausartuko nintzake, beste gauza bat esatera ere: erru aundia izango degu, bai, neskak, Euskera'ren zoritxarrean, baiñan ez gera errudun bakarrak, nere us-tez...
- AMAIA Nortzuk dira besteak..?
- II AND. Gerotxoago esango dizut ori, Amaia..! Laga zaidazu orain nere ipui au amaitzen..!
- (Ikusleeri) Entzun zaidazute orain zuek, euskaldunok. Egia da bai, baztarrrik-baztar dabilkigula gure Ama-Euskera, nun il, zoko baten billa. Ez bait-du gaur, Euskal-erri bertan ere, arrera onik..!
- Baiñan ez da gurea, erru bakarra. Guk

añeko errua ba'dute, euskera-bera aitzakitzat artu ta burruka bizian ari diran euskal-idazleak, eta euskaldunak izan, eta beren etxeetan erdera onartzen duten gurasoak..!

Eta Ama-Euskera ez dago gaur, jolas oietarako..! Il-zorian bait-degu, azken-arnasa nun emango, zoko baten billa..!

AMAIA Etorri dedilla gure ikastolara..!

II AND. Ai, Amaia, Amaia..! Ikastolara etorriko zeran artean, euskera goxoa egingo dezuzuk ere, baiñan bildur naiz, ez ote dezuzuk ere, beste neskatxak bezelaxe, euskera baztartuko, ikastola uzten dezun bezein laister...

AMAIA Nik ez det beñere, ikastolarik utziko..!

II AND. Ori egia izatea, zorionekoak gu orduan, Amaia.

Eta Ander jeikiko da ume-artetik, eta iruditegiko aora joan, eta onela abestuko die ikusleeri.

ANDER Guraso maite, zueri nator
konseju bat ematera,
zuek euskeraz itz-egitea

guretzat ez da naikoa.
Ez zaiguzute, arren erantzun,
ez euskeraz, ez erderaz,
gure galderak ez ba'ditugu
egiten beti euskeraz..!

II AND. Entzun dezute, jaun-andreak..! Eta Aitor-
eta emen diralako, uztu dezagun leenbai-
tleen iruditegia. (Umetxoeri) Agur eta
biar arte...

UMETXOAK Jaungoikoa'k nai baldin ba'du..!

Eta ikusleen eskui-aldetik izkutatuko dira
orain umetxoak, eta II Andereñoa. Ume-
txoen-atzetik au.

Aitor eta I Andereñoa agertuko dira ikus-
leen ezker-aldetik. Luzean berdinak diran
zazpi makilla ekarriko ditu onek, eta mai-
geñean utziko.

I AND. Entzun al'dezu, Aitor, umetxo orrek abes-
tu duan bertsoa..?

AITOR Entzun det, bai..! Eta beste oillar batek
joko liguke Euskal-erria'n kukurruku,
orrek esana, guraso guztiak beteko ba'lu-
teke..!

I AND. Ez da naikoa, izan ere, euskeraz erantzu-
tea. Guraso batek ez lioke erantzun ere

egin bear bere umeetako bati, onek erde-
raz itz-egiten dionean. Onela beartuko lu-
ke-ta, euskeraz itz egitea..!

AITOR Egia diozu, andereño..! Ta onelakoxe
ikasbide bat eman nai nieke gaur, nere
zazpi semeeri ere .Ta ortarakoxe ekarri
ditugu, ekarri ere, zazpi makil auek. Bai-
ñan lokarri bat bear nuke orain.

I AND. Lokarri bat..?

AITOR Lokarri bat, bai..! Baiñan ez edozein lo-
karri.. Billatuko al'zenduek zuk, bazta-
rrik-baztar negarrez dabillen, gure Ama-
Euskera ederra..?

I AND. Billatuko ez nuke ba..?

AITOR Zoaz, ba..! Ta eman dezaizula bere gona-
ko zirrinda bat..!

I AND. Eta emango al'dit..?

AITOR Neretzat dala, esaten ba'diozu, bai..!

I AND. Esango diot, bada..!

Eta ikusleen ezker-aldetik izkutatuko da I
Andereñoa.

Makilleri-begira geldituko da Aitor. Eta
iruditegi-atzetik agertuo da III Andereñoa.

III AND. Sartu al'neike..?

AITOR Aitor'en etxean, irikiak dauzkate beti atean, euskaldunak.

III AND. Milla esker, Aitor..! Baiñan aitorketa bat egitera natorkizu: mingarria izango zaizun aitorketa bat... Ondo dakizu zelatari generala emakumeak, eta zure zazpi seme oieri begira egon naiz luzaro. Ta barkatu, Aitor, baiñak ez ditut, nik nai bezein euskaldunak, ikusi. Ez nuke asarre daudenik esango, baiñan ez, ZAZPIRAK-BAT diranik ere...

AITOR Oraindik bai, andereño..! ZAZPIRAK-BAT dira oraindik... Baiñan gure etsaiak ez daude lo. Gure batasuna etzaie atsegin, eta alegin guztiak egiten ari dira gure batasun ori austearren. Eta euskaldun geranon artean, sotu digute burrukarik gaiztoena..! Bai, andereño, bai..! Arriskoan dago gure batasuna, ta orregatik ekarri ditut onera gaur, nere zazpi seme maite oiek..!

Eta I Andereñoa agertuko da ikusleen ezker-aldetik.

I AND. Zu gurekin zeralako-edo, besteetan baiño

alaitsuago arkitu det gaur, gure Ama-Euskera, ta poz-pozik eman dit, eman ere, bere gona-zirrinda au.

AITOR Ez naiz arritzen..! Ondo bait-daki berak, zirrinda au zertarako bear dedan nik..!
Lokarri onekin lotu bear dituzute orain zazpi makilla auk. Eta zuek lan ori egiten dezuten artean, nere zazpi semeen billa noa ni..!

Eta ikusleen eskui-aldeetik izkutatuko da Aitor.

Gogor lotuko dituzte Andereñoak zazpi makillak, baiñan errez askatzeko eran.
Eta ontan ari diran bitartean...

III AND. Ez al'dion ik, usai berezi bat artzen, gonazati oni..?

I AND. Bai, neska..! Ta euskerak usairik ba'lu, auxe dala, esango niken nik, euskera beraren usaia...

III AND. Eta ez den arritzekoa..! Ez ote den gero auxe, gure euskera gaixoa..?

I AND. Ez niken, ezetz esango..! Baiñan emen ditun Aitor-eta, ta egin dezaiegun leku..!

Eta iruditegi-atzetik izkutatuko dira Andereno biak.

Aitor eta bere zazpi semeak agertuko dira ikusleen eskui-aldetik: Araba, Bizkai, Gipuzko, Nafarro, Benafarro, Lapurdi ta Zubero.

Zazpi makillak dauden mai-ondora urrera-tuko da Aitor, eta iruditegian zabalduko dira besteak, bata-bestearen alboan.

AITOR (Iruditegian sartzearekin batera) Aurrera, mutillak..! Ba'nian zuekin itz-egiteko go-goa. Gauza asko entzun zituak zuetzaz, eta egiak ote diran, jakin nai nitek: leen be-zein indartsuak zeraten ala ez, alegia. Or-tarako gertatu diat makilla-sorta au.

Ba ote'dek zuen artean, zazpi makilla auek austeko gauza danik..? Zer diok ik, Araba..? Ausiko ote ituzke..?

ARABA Nik baietz uste..!

AITOR Eta ik, Bizkai..?

BIZKAI Baietz esango nuke nik ere..!

AITOR Eta ik, Gipuzko..?

GIPUZKO Nik ez det uste, besteak baiño gutxiago naizenik..!

- AITOR Ondo ziok..! Eta ik, Naparro..?
- NAPARRO Orain artean beintzat, etzait indarrrik falta izan..!
- AITOR Egia dek..! Indartsuenetako bat izan aiz i, beti. Baiñan bildur nauk, ez ote aizen pixkanbat makaldu..! Eta zuek, Bidasoaz-aruzko nere semeok..?
- BENAPARRO Baietz esango nuke nik..!
- AITOR Eta ik, Lapurdi..?
- LAPURDI Nik ere, berdin esango nuke..!
- AITOR Eta ik ere bai, Zubero..! Ez al'dek ala..?
- ZUBERO Alai da bai, Aitor..!
- AITOR Aurretik nekian, zuen-guztion erantzuna..! Baiñan itzak, itz dituk, eta ni ez nautek betetzen. Joku bat bezela dek au, ta jokuan agertu bear izaten dituk indarrak. Ikusi dezagun bada, ea zuen-arteon nor dan, zazpi, makilla auek austeko gauza..!

Eta Araba'ri emango dio makilla-sorta. Eta onek ekiñaldi batzuek egin ondoren, Bizka'i'ri emango dio, eta onek Gipuzko'ri, ta

Gipuzko'k Naparro'ri, ta Naparro'k Bena-
parro'ri, Ta Benaparro'k lapurdi'ri, ta La-
purdi'k Zubero'ri, ta Zubero'k Aitor'eri be-
rriro.

AITOR Azkarragoak ziñatela, uste nian... Zazpi
makilla auek austeko, etzenuten gauza
bat besterik egin bear: lokarria kendu
lenegotik, eta banaka-banaka ausi gero
makillak. Begira zeñen-errez ausiko ditu-
dan nik..!

Eta lokarria askatu ondoren, bana-banaka
ausiko ditu Aitor'ek zazpi makillak.

Iruditegiko aora joango da gero, ta onela
itz-egingo die ikusleeri.

AITOR Ikasbide au eman nai izan duzutet zueri,
euskaldun maiteori... Euskaldunok alkar-
turik biziko geran artean, ez da munduan,
Euskal-erria menderatuko duan erririk.
Baiñan sakabanatzen baldin ba'gera, etsai-
rik txikienak menderatuko gaitu orduan,
ez bait-gera iñor banaka.

Baiñan ez aaztu, euskaldun maiteok,
euskera dala, gu-danok lotzen gaituan lo-
karri bakarra. Euskal-erria'k ba, euskerak
iraungo duan artean iraungo du, ta ez
geiago..!

Zuen eskuetan dezute bada, Euskal-erria'
ren etorkizuna..!

Txistularia agertuko da iruditegi-atzean eta
AITOR'REN IZKUNTZA ZAARRA jotzen asiko
da, iruditegikoak eta ikusleak, danak bate-
ra abestu dezaten..

DANAK

Aitor'en izkuntza zaarra
nai degu zabaldu,
munduaren aurrean
gizonki azaldu.
Baldin gure zaiñetan
odolik ba'degu
euskaldunak euskeraz
itz egin bear degu..!

Z A P I A

1.974 - Errege-egunean.

1870

1871

1872

1873

1874

1875

1876

1877

1878

1879

1880

OARRAK:

- 1/. Nun jasoá dan ipuia.
- 2/. Noiz jasoá dan.
- 3/. Zenbat urte zituan, ipuia esan zuan gizon edo emakumeak.

I. AXARIA'REN ZORIGAITZA..!

Bedia'n
1921

II. ASTOA, TXAKURRA, KATUA, OILLARRA TA AARIA.

Muxika'n
1924

III. JOANES ARTZAIA TA ERENSUGEA..!

Ataun'en
1923
50

IV. AXARIA TA OTSOA..!

Nere aitarena.

V. SAN MIEL'GO ERENSUGEA..!

Ataun'en
1919

VI. JENTIL ARROA..!

Ataun'en
1921
60

VII. TARTALO..!

Zegama'n
1920

VIII. MURUMENDI'KO MARI..!

- IX. LAZKAU'KO DUKEAREN ALABA..!
Nere aitarena.
- X. SORGIN GAIZTOAREN IPUIA..!
Ataun'en
1902
- XI. SORGIN LAPURRAREN IPUIA..!
Ataun'en
- XII. ZAPATARI TXIKIA..!
Ataun'en
- XIII. BEÑARDO..!
Errenteri'n
1934
- XIV. DAR-DAR..!
Ataun'en
1900
- XV. BILDURRIK ETZUAN MUTILLA..!
Ataun'en
- XVI. IKASLE TONTOA..!
Oartzun'en
1935
- XVII. MAKILLA-KIXKI..!
Ataun'en
1921
- XVIII. BERASTEGI'KO ERREMENTARIA..!
Nere aitarena
- XIX. ARRAUTZA ARRIGARRIAK..!
Dima'n
1935
59
- XX. SENDAGILLE AZKARRA..!
Kortezubi'n
1922

